



2017. urteko memoria

FAMILIA GIROAN
EUSKARAZ
Igandeak Jai
Familia irteerak

2017. urteko saioen memoria

AURKIBIDEA

- **EGITASMOA**
- **2017 URTEKO SAIOAK**
 - **Urtarrilak 22 · Igandeak Jai · Armentia ikastola**
 - 'Ilusioaren doinua' eta txotxongilo tailerra
 - **Urtarrilak 28 · Familia irteera · Naipes museoa**
 - **Otsailak 19 · Igandeak jai · Arantzabela ikastetxea**
 - 'Mundu berri nol?' eta mozerro mitologikoak
 - **Martxoak 19 · Familia irteera · Iturburu**
 - **Martxoak 19 · Igandeak jai · Lakuabizkarra**
 - 'Mu eta Zu' eta 'musika josten' tailerra
 - **Apirilak 02 · Igandeak jai · Karmeldarrak ikastetxea**
 - 'Lapurretak' eta 'alaitasunaren bila' gimkana
 - **Maiatzak 21 · Igandeak jai · Mariturri ikastetxea**
 - 'Korri' eta 'mundua koloreztatu' tailerra
 - **Uztailak 6 · Familia irteera · Gaur eta Betiko jolasak**
 - **Irailak 28 · Igandeak jai · San Martin ikastetxea**
 - 'Lapurretak' eta zirko tailerra
 - **Urriak 8 · Igandeak Jai · Errekabarri ikastetxean**
 - 'Euskararen taupadak' eta xiba tailerra
 - **Urriak 22 · Familia irteera · Santa Catalina lorategia**
 - **Urriak 28 · Igandeak jai · Landazuri ikastola**
 - 'Haizearen herrira' Pupu eta Lore
 - **Azaroak 12 · Igandeak jai · Ibaiondo**
 - 'Magia parrastan' eta magia tailerra
 - **Abenduak 2 · Familia irteera · Euskararen eguna**
 - **Abenduak 18 · Igandeak jai · Abetxuku**
 - 'Hiru lumak' ipuin kontaketa eta tailerra
- **BALORAZIO OROKORRA**

· IGANDEAK JAI · egitasmoa ·

- Euskararen familia transmisioa lantzeko eta Gasteizko familia euskaldunen arteko loturak trinkotze asmoz GEU elkarteak **‘IGANDEAK JAI. Familia giroan euskaraz’** egitasmoa antolatzen hasi zen 2013ko irailean.
- 2014 urtetik aurrera IGANDEAK JAI egitasmoa urte osoko programa bezala garatu du GEU elkarteak, urtero 10 saio antolatuz.
- 2017 urtean bide beretik jarraitzea erabaki du GEU elkarteak, Gasteizko Udalaren, Arabako Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren konpromiso eta babesarekin.
- Aurten ere guraso elkarte eta auzo elkarteekin harremanetan jarri da GEU elkarteak ‘IGANDEAK JAI’ proiektua garatzeko. Hamar saioak Gasteizko eskola ezberdinetan garatu dira.
- Haurrei zuzenduriko ikuskizunak eta lantegiak uztartu dira hilero antolatu diren bi orduko emanaldi hauetan.
- Emanaldietan diziplina desberdinak aurkeztu dira: antzerkia, ipuin-kontalaria, magia, kontzertua, dantzaldia, literatura... Ikuskizun soila eskaini baino haurren eta gurasoen parte hartzea sustatu dituzten emanaldiekin osatu da IGANDEAK JAI egitasmoa.
- Tailerrek edota jolasek lotura dute ikuskizunarekin eta, era berean, familia osoa aktiboki parte hartzeko pentsatuak izan dira. Hiru hezitzaile ibili dira saio guztietan tarte hau dinamizatzen, eta aurretik zehaztutako hizkuntza irizpideak aintzat hartu dituzte. Aurten, lehen aldiz, GEU elkarteak kontratu ditu hezitzaile hauek zuzenean.
- Guraso euskaldunen parte hartzea eta inplikazioa bultzatzeko dinamika desberdinak proposatu dira. Horrela, guraso erdaldunek euren seme-alaben laguntza behar izan dute jolasean parte hartzeko edo tailerra garatzeko.

2017 URTEKO SAIOAK

Aurten hamar saio antolatu dira Gasteizko hainbat auzotan eta orotara 1690 lagunetik gora bildu da IGANDEAK JAI egitasmoko saioetan.

Hamar saio horietako bat berezia izan da: Landazuri ikastetxean **Egin Dezagun Kale! Gasteizko euska(e)dunon** jaia egitasmoaren baitan antolatutakoa, alegia. Pupu eta Lore-ren ekitaldi berezi bat antolatu zen, txokolatada, aurpegi margotzea eta puxika banaketa batekin batera, gerora kalejira batean bukatu zuena.

· FAMILIA IRTEERAK · egitasmoa ·

- 2015 urtean 'IGANDEAK JAI' egitasmoari beste ekimen bat gehitu zitzaion: 'FAMILIA IRTEERAK'. Egitasmo horrek euskaraz garatutako egun osoko aisialdi proposameneren beharra asetzeko helburua du, izan ere, aurreko urteetan horrekiko interesa aurkeztu baitzuten IGANDEAK JAI saioetako parte hartzaileek.
- 2015 urtean lau familia irteera egin ziren, IGANDEAK JAI ekimenaren ekintza gehigarri bezala. Hauek izandako arrakasta ikusita, ekimen puntualetatik eskaintza egonkorra pasatzea erabaki zen.
- 2016an hilabeteetan behin familia irteera bat antolatu zen, baina eskaintzaren jarraipena nahi bestekoa ez zela ikusita, 2017an hiru hilean behin antolatzea erabaki zen. Horrela, eskaintza puntualagoa izanda parte-hartzea handiago izango zelakoan.
- 'FAMILIA IRTEERAK' Gasteiz eta Arabako herri eta toki ezberdinak ezagutzeko aukerak bilatu ditu, horretarako elkarte eta ekimen ezberdinekin harremanak jorratuz. 2017an, bereziki, Jostabi-rekin harreman emankorra garatu da irteeren bidean.
- Irteera guztietan lantegiak edo bisita gidatuak egin izan dira, hauek garatzeko hezitzaile eta gida euskaldunak egon direla bermatuz.

2017 URTEKO SAIOAK

Aurten bost irteera antolatu dira Gasteizen eta Gasteiz inguruko herri eta mendietan. Tailer eta bisita gidatu ezberdinak garatu dira, Gasteiz eta Arabako kultur ondarea familia giro euskaldunean gozatzea bermatuz. Orotara 180 pertsonen parte hartu dute irteeretan.

Bereziki azpimarragarria izan da Santa Catalinara egindako familia irteera, horrek izandako harrera ona dela eta.

· 2017 urtea SAIOZ SAIO ·

URTARRILAK 22 Igandeak Jai Armentia



‘Ilusioaren doinua’ Zirkun Zirkun

Tina txotxongiloak bere mundu magiko eta tipian murgiltzen du ikuslea, non gertakizun txiki guztiak erraldoi bihurtzen diren ilusioaren poderioz. Zirkun Zirko taldeko sorkuntza-lan berri honetan, txotxongilo, antzerki eta zirku modalitate ezberdinak nahasten dira.

Zirkun Zirko Gasteizen sortutako elkarte kultural bat da, eta bere helburu nagusiak antzerkia eta zirkoa zabaltzea da, euskarazko ikuskizunen bitartez.

Txotxongilo tailerra

Material ezberdina erabiliz txotxongiloak egin zituzten umeek haien gurasoen laguntzaz.

Balorazioa

*Parte hartzea: 80 pertsona. 55 ume + 35 heldu

*Guraso zein umeek asko parte hartu zuten eta oso balorazio positiboa egin zen

*Ikuskizuna: oso entretenigarria eta umeak oso adi.

*Tailerra: ume nagusientzat egokiagoa txikientzat baino.

URTARRILAK 28 Familia irteera NAIPES MUSEOA

Naipes Museoari bisita

Museoko langile batek familiei zuzenduriko bisita gidatua egin zuen, inprenta modu eta teknika ezberdinak azalduz.

Balorazioa

*Parte hartzea: 14 pertsona. 7 ume + 7 heldu

*Oso irteera polita izan zen, familiei zuzenduriko bisita gidatua izanik oso ondo prestatua egon zen eta familiak gustura egon ziren.

OTSAILAK 19 Igandeak Jai ARANTZABELA

‘Mundu berri nol?’ Apika antzerki taldeak

Munduaren Iparra eta Hegoari buruzko ipuin kontaketa bat egin zen, munduaren egoera modu erraz batean ulertu eta herrialde ezberdinen arteko harremanak ezagutzeko, munduaren dinamika globalak.

Mozorro mitologikoak

Hiru pertsonaia mitologikoetan oinarritutako mozorroak prestatu zituzten ume eta nagusiek zakar poltsak erabiliz. Gerora, mozorro horiek jantzita jolas bat egin zuten bertaratutako guztien artean: oiloa azeria ea untxia jolasa baina mitologiara moldatua.

Balorazioa

*Parte hartzea: 70 bat pertsona. 40 ume + 30 heldu

*Ume oso txikiak gerturatu ziren orokorrean, zaila izan zitzaien ipuinak ondo ulertzea, kontaketaaren dinamika gutxiagatik.

*Tailerra: familiak asko inplikatu ziren tailerrean.

*Arantzabela ikastolak hartu dute parte antolaketan.

MARTXOAK 19 Familia irteera ITURBURU

Iturburura irteera Atxipi mendi taldearekin

Araiako errekaaren iturburura prestatu zen ibilbidea Atxipi mendi taldearekin batera. Eguraldi kaxkarra zela eta azken momentuan bertan behera utzi behar izan zen.

Balorazioa

*Parte hartzea: izen emate ugari bazegoen ere, eguraldi txarragatik bertan behera utzi behar izan zen irteera.

*Atxipi mendi taldeak hartu zuen parte antolaketan.

MARTXOAK 19 Igandeak Jai LAKUABIZKARRA



‘Mu eta Zu’ Karrika BAT

Antzezlan honek emozioei buruz berba egiteak duen garrantzia azpimarratzen du. Horrela, haurrekin batera emozio ezberdinak jorratu eta hauek identifikatzen laguntzen duen ikuskizun bat da, partehartzailea.

‘Musika josten’ tailerra

Eskulan tailer bat prestatu zen familiei zuzendurikoa: zulorun plantilla batean orri bat jarri eta bibolin bat josi behar izan zuten paperean. Ume askoren adinerako tailerra zail xamarra izan zen, eta horrek gurasoen parte

hartzea ezinbestekoa egin zuen. Hori dela eta, familien arteko harremana eta euskararen transmisioan egindako eragina oso positiboki baloratzen da.

Balorazioa

*Parte hartzea: 65 bat pertsona. 35 ume eta 30 heldu

Ikuskizuna ez zen 40 minutura heldu.

*Ikuskizuna: ikuskizuna ondo egon zen eta partehartzailea izan zen, baina motzegia. Jendea gustura egon zen hala ere.

*Tailerra: zail xamarra umeak txikiak zirelako eta gurasoen laguntza behar zuten, hala eta guztiz ere, horrek familien arteko harremanak hauspotu zituen.

*Eguzkilore Guraso Elkarteak eta ikastolak hartu dute parte antolaketan. Guraso elkartekoak oso ondo baloratu zuten dena.

APIRILAK 2 Igandeak Jai KARMELDARRAK



‘Lapurretak’ Zirko Loretsua antzerki taldea

Zirkoaren mundua hedatu nahi duten pertsonez osatutako elkarte da Zirko Loretsua antzerki taldea. Lapurretak ikuskizuna dibertigarria eta partehartzailea da. Zigor Ozpin lapurretak egiten ditu baina ez da politikaria, PAILAZOA baizik. Munduari osoko ikuskizunetatik edaten duen ikuskizuna da hau.

‘Alaitasunaren bila’ gimkana

Guraso eta seme-alabek elkarrekin egiteko gimkana bat antolatu zen. Tamalez, espazioa ez zen oso ezegokia (oihartzuna, toki gutxi, ume kopuru handia...), eta frogak azaltzeko zailtasunak egon ziren. Espazioa txikia. Hala eta guztiz ere tailerra oso ondo antolatua egon zen.

Balorazioa

*Parte hartzea: 94 pertsona (53 ume eta 41 heldu).

*Ikuskizuna: hartzen zen lehen aldia. Oso egokia > euskalduntze murgiltze prozesuan hasten ari dira. Ikuskizun polita eta parte hartzailea. Aretoa (antzoki handia) oso handia eta eserleku finkoekin

*Oso harrera ona izan zuen ekimen honek.

*Karmeldarreko normalkuntza taldea eta Guraso Elkartearekin lankidetzan antolatu zen.

MAIATZAK 21 Igandeak Jai MARITURRI



‘Korri eta Xalto’ pailasoak

Korri, Xalto ta Brinko, pailazo hirukoteak haur eta gazteen aisialdiko heziketan urte luzeetan hartutako esperientzia guzia jarri dute egitasmo berri honetan. Euskara tresna nagusi bezala hartuz, Lezoko pertsonaiak eta istorioak zabaltzeko asmoz lan egiten dute. Ikuskizun honetan, eguraldi ona egiten duenez, pailazoek mendira egun pasa joatea erabaki dute. Beren bila joan behar zuen furgonetari gurpila zulatu zaio eta denbora nolabait bete beharrean

aurkitu dira. Show berria prestatzeari ekin diote publikoaren laguntza zuzenarekin, musika, abestiak, efektuak, dantza eta txorokantekin.

‘Mundua koloreztatu’ tailerra

Collage handi bat egitea izan zen helburua, baina ume asko zegoen eta oso zaila izan zen tailerra ondo bideratzea. Izan ere, eskolak egun osoko jai bat antolatua zeukan eta beste hainbat ekintza zeudenez parte hartzaileek arreta galtzen zuten.

Balorazioa

- *Parte hartzea: 500 pertsona. Ikasturte amaierako jaian txertatu zuten.
- * Aurreikusi zen jende asko egongo zela eta tailerra egokitu zen. Hala eta guztiz ere oso zaila izan zen ekintzak gauzatzea.
- *Ikuskizuna oso egokia jende asko egon arren, arreta mantentzea lortu zuen.
- *Oso harrera ona izan zuen ekimen honek eta haur zein helduak oso gustura egon ziren.
- *Mariturri eskolako guraso elkartearekin lankidetzan antolatu zen saioa.

UZTAILAK 6 Familia irteera Gaur eta betiko jolasak

Betiko eta Egungo jolasak Oihaneder Euskararen Etxean

Bi tailer ezberdinen nahasketa bat proposatu zitzaien familiei Oihanederren egiteko:

Betiko jolasak: jolas tradizionalen inguruko lantegia, eta bide batez euskarazko esapideak lantzekoa.

Egungo jolasak: gurasoekin gaur egun jolasteko aukera berriak lantzeko saioa seme-alabekin euskaraz jolas dezaten.

Balorazioa

- *Parte hartzea: 14 pertsona
- *Tailerra: gutxi zirenez eta oso motibatuta zeudenez gurasoen inplikazio handia izan zen. Oso balorazio positiboa egin zuten parte-hartzaile zein antolatzaileek.
- * Jostabi eta Oihanederrekin elkarlanean gauzatu zen irteera hau.

IRAILAK 28 Igandeak Jai SAN MARTIN



‘Lapurretak’ Zirko Loretsua antzerki taldea

Zirkoaren mundua hedatu nahi duten pertsonen osatutako elkarte da Zirko Loretsua antzerki taldea. Lapurretak ikuskizuna dibertigarria eta partehartzailea da. Zigor Ozpin lapurretak egiten ditu baina ez da politikaria, PAILAZOA baizik. Munduari osoko ikuskizunetatik edaten duen ikuskizuna da hau.

Zirko tailerra

Zirko bateko eszenatoki bat margotu zuten, gerora panpin txikiak moztu eta margotu, eta azkenik panpinak zirkoan baleude bezala jolastu ziren. Familien laguntza behar izan zuten umeei, eta eskuz egindako jostailua etxera eraman ahal izan zuten.

Balorazioa

*Parte hartzea: 200 pertsona

* Ikuskizuna errepikatu zen, ikastetxe honen errealitateari oso ondo egokitzen zitzaioelako eta jende asko erakarri zezakeelako. Izan ere, San Martín eskola euskararen murgiltze prozesuan dago eta guraso ez euskaldun asko daude. Hortaz, ikuskizuna egoki ikusi zen testuinguru horretan.

* San Martin eskolako zuzendaritza eta Guraso Elkartek parte hartu zuten antolaketan.

URRIAK 9 Igandeak Jai ERREKABARRI



‘Euskararen taupadak’ Irrien lagunak

Martin Bertsok eta Tiritatxok bederatzi proba egin dituzte, euskarak gure herrian duen osasuna neurtzeko. Proba horietan haur, guraso zein aiton-amonek hartu behar izan dute parte eta lortutako emaitzen arabera euren diagnostikoa egin dute Martin Bertsok eta Tiritatxok: euskara gure herrian osasuntsu edo gaixo dagoen esango digute. Musika, kolore eta jolasez beteriko ikuskizuna da.

Xiba tailerra

Eskulan bat antolatu zen ume eta gurasoek elkarrekin egiteko. Xibak margotu zituzten eta horietan artileak pegatu.

Balorazioa

*Parte hartzea: 130 ume zein heldu.

*Ikuskizuna: Ikuskizuna oso ona, dinamikoa eta parte hartzailea

*Tailerra: jende gehiegi eta espazioa txikia. Ez zen familien parte-hartzea lortu eta ez zuen nahi bezain ondo funtzionatu.

*Errekabarriko guraso elkarteak hartu zuen parte antolaketan.

URRIAK 22 Familia irteera SANTA CATALINA LORATEGIA

Santa Catalina lorategi botanikoa

Trespenteseko Santa Catalina lorategi botanikoari bisita gidatu berezi bat prestatu zen: gurasoek ibilbidea jarraitzen zuten bitartean haurrek lorategitik pista jolas berri bat egin izan zuten.

Balorazioa

*Parte hartzea: 52 ume zein heldu.

*Irteera interesgarria eta polita. Umeentzako jolas pista.

*Oso balorazio positiboa egin zen: aurreikusitako parte hartzaileen kopurua gainditu zen, eta denek parte hartze aktiboa izan zuten.

*Jostabirekin elkarlanean antolatu zen irteera hau.

URRIAK 28 Igandeak Jai LANDAZURI

‘Haizearen herrira’ Pupu eta Lore

Pupu eta Lore poz-pozik daude, Aitona Manolo etorri baita bisitan, bere gitarra, kantu eta jolasekin. Gauza oso gutxirekin, mundua dantzan jartzeko kapaz da aitona Manolo: musika eta irudimen apur bat. Zer besterik beharda, ba, egunerokotasuna magiaz janzteko?

Aurpegi margotzea, puxika banaketa eta txokolatada

Ikuskizuna eta gero, Egin Dezagun Kale! eguneko kalejirarako giroa berotzeko ekintza ezberdinak egin ziren: umeen aurpegi margotzea, puxiken banaketa eta txokolatada bat prestatu ziren. Behin dena prest, Gasteizen zehar euskararen ikusgarritasuna bultzatzeko kale-jira girotuan irten ziren familiak Falerina lorategiraino.

Balorazioa

*Parte hartzea: 300 bat pertsona, 180 ume eta 120 heldu.

*Oso harrera ona izan zuen ekimenak. Jende kopuru altua egongo zela ikusita sarrera gonbidapen bitartez egin behar izan zen, tokiko aforoa errespetatzeko.

- * Ikuskizunak harrera oso onga izan zuen.
- * Antolaketan Landazuri ikastolako guraso elkarteak parte hartu zuen.

AZAROAK 12 Igandeak Jai IBAIONDO



‘Magia Parrastan’

Ikuskizun honetan magia pila ikusi zuten ume zein helduek: kartek, bolatxoek, sokek, agerpenek eta desagerpenek izango zuten protagonismoa. Ikuskizun parte-hartzaile, dinamiko eta magikoa familia osoari zuzendutakoa.

Magia tailerra

Espero baino jende gehiago gerturatu zen eta aurreikusitako tailerra aldatu behar izan

zen. Horrela, jolas kooperatiboak egin ziren. Familia ez euskaldun asko agertu ziren saio honetara eta zaila izan zen tailerra gauzatzea, jolasetan parte hartu ez eta bazterretan geratu zirelako hizketan asko, jokoak oztopatuz. Azken saioetan somatzen den tendentzia bat izan da hau.

Balorazioa

*Parte hartzea: 200.

*Ikuskizuna: jendea oso pozik egon zen, baina magoak arreta deitu behar izan zien umeei, familiek ez zutelako haien jarrera zaintzen eta magoaren saioa oztopatzen zuten.

*Tailerra: familia ez euskaldunei zaila egiten zaienez tailerrak jarraitzea asko bazterretan geratzen ziren hitz egiten eta dinamikak oztopatzen zituzten zaratarekin, espazioa txikia izanik.

*Ibaiondo Ikastolako guraso elkarteak hartu dute parte antolaketan.

ABENDUAK 2 Familia irteera EUSKARAREN EGUNA



Kandelen mosaikoa, kalejira eta desiren zuhaitza

Euskararen Nazioarteko egunaren bezperan antolatutako ekintzetan parte-hartzeko gonbitea luzatu zaie familien: euskararen aldeko kandela mosaikoa piztu, kalejira erraldoi batean parte hartu eta euskararen desiren zuhaitzan euskararekiko haien desira eta erronkak txertatzea. Euskararen erabilerari

zuzenduriko arratsalde oso bat.

Eguraldi txarra zela eta tokiz aldatu behar izan zen kandelen mosaikoa eta kale-jira nahi baino xumeagoa izan zen, hala ere, jendea animatu zen eta oso balorazio positiboa egin zen.

Balorazioa

*100 pertsona baino gehiago gerturatu ziren, erdia baino gehiago umeak.

*Familia irteeretara etortzen diren familiei deialdi berezia egin zitzaion eta asko animatu ziren. Ekintza ikusgarria izanda, umeen parte-hartzea sustatzen da eta oso ondo baloratzen da.

* Antolaketan Alea aldizkaria eta Oihaneder Euskararen Etxeak parte hartu dute.

ABENDUAK 18 Igandeak Jai ABETXUKU



‘Hiru luma’ ipuin kontaketa

Rosa Martinez ipuin kontalariaren eskutik umeek istorio ikaragarriak entzun ahal izan zituzten. Lehen momentutik txotxongiloek umeekin bat egin zuten eta giro ederra sortu zen.

Amets harrapakariak

Material ezberdinak erabiliz familiek amets harrapakariak egin zituzten. Gurasoen parte hartzea ezinbestekoa izan zen, bereziki ume txikienekin.

Balorazioa

*Parte hartzea: 52 bat pertsona, 25 haur eta 27 heldu.

*Ikuskizun parte-hartzaile eta dibertigarria. Umeekin interakzioa sustatzeko gaitasun handia zuen artistak eta guraso zein gazte oso gustura egon ziren.

* Tailerrean ere gurasoek parte hartu zuten. Parte hartzaileen kopurua mugatuagoa izanagatik errazagoa izan zen kudeaketa eta transmisioaren sustapena.

*Lopez de Gereñu ikastetxeko guraso elkarteak hartu du parte antolaketan.

· *balorazioa* ·

- **IGANDEAK JAI SAIOAK** – emanaldiak, jolasak eta tailerrak -
 - Orokorrean ikuskizunen balorazio positiboa egiten da. Horretaz gain, parte hartzaile kopurua espero baino altuagoa denean zaila izaten da umeek ikuskizuna ez oztopatzea momentu batzuetan eta horretarako gurasoen kolaborazioa ezinbestekoa da.
 - Jolasek eta tailerrek oso ondo funtzionatu dute jende kopurua mugatua denean, jende asko dagoenean aldiz, zailagoa da hauek garatzea, batez ere, azken boladan familia ez euskaldun gehiago gerturatzeko direla. Horiek, tailerrak jarraitu ezin eta alde batean hizketan geratzen badira tailerren dinamika oztopatzen dute eta, azken finean, euskararen transmisioa familia barruan lantzea zailago egiten dute. Alde batetik, baloratzen da begirale gehiago beharko liratekela, ez umeak artatzeko, baizik eta gurasoen pare hartzea gehiago bultzatzeko. Saioen bigarren zati honetan gurasoen parte-hartzea ezinbestekoa da, eta euren inplikazioa beharrezkoa dela nolabait azpimarratzea beharrezko ikusten da.
- **FAMILIA IRTEERAK** – irteerak eta bisita gidatuak -
 - Orokorrean irteeren balorazio positiboa egiten da. Hala ere, irteeren arrakasta baldintzatu duten bi faktore identifikatu dira: alde batetik eguraldia
 - Hiru hilean behin egitearen erabakia oso ondo baloratzen da, komunikazioan indar handiagoa egin daitekeelako eta familiek gogotsuago hartzen dituztelako irteerak.
- **PARTE HARTZEA**
 - Parte hartzaile kopuru aldetik balorazio positiboa egiten da, aurreko urteetako parte hartzea luze gaituz. Ekaineko saiora espero zen baino askoz jende gehiago gerturatu zen, eskolako ekimen batekin bat eginda.
 - Gero eta familia gehiagok hartzen du parte saio batean baino gehiagotan. Euren auzotik/eskolatik irteteko hautua egin dute hilean behin igande arratsaldean.
 - Udazkeneko/neguko saioak bereziki arrakastatsuak izan dira. Familia irteeretan eguraldiak hauen arrakasta baldintzatu du, bereziki Gasteiztik kanpokoetan.
 - Igandeak Jain guraso ez euskaldunen presentzia handitzen ari da, eta gero eta zailagoa egiten ari da familia barneko euskararen sustapena egitea. Urtearen azken hilabeteetan nabarmenki egin du gora egoera honek, saio guztietan 100 pertsonatik gora egon delako. Aurrera begira gurasoen parte hartzea gehiago sustatzeko neurriak baloratuko dira, parte hartzaileen kopurua murriztuz edo kontrolatuz. Harreman pertsonalizatuak galtzen ari dira, begirale gutxi

egoteagatik. Proiektua asko handitu da eta erroetara itzultzea baloratzen da.

- Jolasak eta tailerretan haurren eta gurasoen arteko interakzioa garatzea da helburua, eta ahal den heinean, harreman hori euskaraz izatea. Urte bakarrean hainbat urrats eman da bide onean, baina garrantzitsua da familia euskaldunen presentzia bermatzea beste familiak euskaraz ere aritu daitezen.

- **FAMILIA EUSKALDUNEN LOTURAK TRINKOTZEN**

- Auzo edota eskola desberdinetako familia euskaldunen hileko topagune bihurtzeko bidean zen Igandeak Jai. Bertaratazen diren familia ez euskaldunen gorakadarekin sare honen trinkotzea zailagoa egiten hasi da eta familia ez euskaldun hauek euskarara gerturatzeko estrategiak bilatu beharko dira, batez ere, Igandeak Jai zen arnas gunea mantentzeko bidean.
- Familia irteeretan nabariagoa izan da guraso euskaldunen parte hartzea. Berez, euskaraz komunikatzeko gaitasuna izatea eskatze da eta familia gehienek bete dute irteeren helburu hau.

- **GURASO ELKARTE eta AUZOKO ERAGILE EUSKALDUNEN INPLIKAZIOA**

- Hezkuntza zentroen artean inplikazio maila desberdina.
- Eskola batzuetan (berrietan batez ere) Guraso Elkartearen inguruan guraso talde bat biltzen da, nolabaiteko antolaketa dago. Kasu horietan G.E.aren inplikazioa handia izan da eta IGANDEAK JAI saioa euren programazioaren barruan sartu dute.
- Beste batzuetan, aldiz, Guraso Elkarateek ez dute funtzionamendu sendorik eta bakar batek hartzen ditu ardura guztiak. Hala eta guztiz ere, saio hauetan inguruko batzuk inplikatzen saiatu dira.
- Auzoetan ere antzeko egoera bizi da. Gasteizko auzo berrietan hainbat talde sortu da auzoan euskara sustatzeko asmoz, eta horrelakoetan, haiekin elkarlanean egin da IGANDEAK JAI saioaren zabalpenean.

· I eranskina: kartelak ·

**kartel hauek digitalki zabaldu dira orokorrean, guraso elkarte batzuek haien kontu inprimatu badituzte ere.*



IGANDEAK JAI

familia giroan euskaraz

URTARRILAK

22

17.00etan 'Ilusioaren doinua'
-Zirkun Zirko-

18.00etan txotxongilo tailerra

ARMENTIA

ikastola
Gaztelako atea.101

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babesleak:





IGANDEAK JAI

familia giroan euskaraz

OTSAILAK
19

17.00etan "Mundu berri nol?" Apika

18.00etan mozerro mitologikoak

ARANTZABELA
Joaquin Collar kalea

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babesteak:



Vital gizarte ekintza

LABORAL KULTURA



IGANDEAK JAI

familia giroan euskaraz

MARTXOAK

19

17.00etan "MU eta ZU" Karrika AT

18.00etan "Musika josten" tailerra


LAKUABIZKARRA

Baiona kalea, 10

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babesteak:



Vital gizarte ekintza





IGANDEAK JAI

familia giroan euskaraz

APIRILAK

2

17.00etan "LAPURRETAK" Zirko Loretsua

18.00etan "Alaitasunaren bila" Ginkana

**CARMELITAS
SAGRADO CORAZON**

Foru kalea, 49

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babesteak:



Vital gizarte ekintza

LABORAL
KULXA



IGANDEAK JAI
familia giroan euskaraz

MAIATZAK
21

17.00etan "KORRI" Xalto eta Xalto

18.00etan "Mundua koloreztatu" tailerra

MARITURRI
Leza kalea, 10

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babesteak:



Vital
FUNDACIÓN FUNDACIÓN

LABORAL
KULXA



IGANDEAK JAI

familia giroan euskaraz

IRAILAK
24

17.00etan "LAPURRETAK" Zirko Loretsua

18.00etan Zirko tailerra

SAN MARTIN
eskola
Adriano VI, 17B

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babesteak:





IGANDEAK JAI

familia giroan euskaraz

17.00etatik 19.00etara...

"EUSKARAREN TAUPADAK" Irrien lagunak

TAILERRA: xiba

URRIAK

8

ERREKABARRI

Azazeta mendatea kalea, 6

Antolatzailea:



Laguntzaileak:




Babesteak:



PUPULOLORE

HAIZEAREN HERRIRA





IGANDEAK JAI

familia giroan euskaraz

AZAROAK
12

17.00etan "MAGIA PARRASTAN" Imanol Iruñe

18.00etan Magia tailerra

IBAIONDO
Tarragona kalea, 9

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babesteak:





IGANDEAK JAI

familia giroan euskaraz

ABENDUAK

17

17.00 - 19.00

"HIRU LUMAK" Rosa Martinez & Tailerra

Lopez de Guereñu

Arana kalea, 33

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babesteak:



Afixipi Mendi Taldea

UMEENTZAKO TXANGOAK

 **NORA:** ITURBURUra

 **NOIZ:** MARTXOAK 19

 **ORDUA:** 10:00etan Araiako
bus geltokian

Azkenrensa mendia taldea
Naturan jolastuz, gozatzuz eta izadia sentitu, maitatu!

GEU



Betiko
jolasak

Egungo
jolasak



Uztailak 6, osteguna
19.00-21.00
Falerina Lorategia
ADINA: 6-12 urte bitartean

Doan Plaza kopuru mugatua

IZENA EMATEKO EPEA: Ekainaren 12tik 30era

Bidali zuen *datuak info@geuelhartaeus.net helbidera

*Parte hartuko duzuen guztien (haur eta helduak) izen-abizenak, adina eta harremanetarako telefono zenbakia eta e-posta

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Gasteizko Mintzalaguna 2017. urteko memoria



AURKIBIDEA

1. GASTEIZKO MINTZALAGUA
2. 2016/2017 IKASTURTE BUKAERA
 - 2.1. IKASTURTEAN ZEHARREKO BILAKAERA
 - 2.2. IKASTURTE AMAIERAKO BALORAZIO GALDETEGIA
 - 2.3. EKINTZA OSAGARRIAK
3. 2017/2018 IKASTURTE HASIERA
 - 3.1. KOMUNIKAZIO KANPAINA
 - 3.2. MATRIKULAZIOA ETA TALDE BANAKETA
 - 3.3. TALDEEN JARRAIPENA
 - 3.4. MINTZALAGUN TABERNAK



1. GASTEIZKO MINTZALAGUNA

Mintzapraktikaren oinarria, euskararen normalizazioan eragiteko xedez euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak hitz egiteko ohitura, zailtasuna edo aukera ez dutenekin elkartzea da. Helburu honekin Gasteizko hainbat txokotan elkartzen diren 5-6 lagunez osatutako taldeak sortzen dira. Aisialdian kokatzen dira harreman hauek, eremu ez formal batean, hain zuzen ere. Mintzalagun talde hauek astero duten hitzorduaz gain, hilero beraiei zuzendutako ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera dute. Zentzu honetan, programak hizketarako jariora lantzea, motibazioa eta ohitura txertatzea eta harreman sare euskaldunak ehuntzea du xede.

Azken urteotan mintzapraktika programek garapen adierazgarria izan dute. Euskal Herri osoan 6000 lagun inguru biltzen dira mintzapraktika programetan. Horietatik, 1000 gutxi gorabehera Araban eta ia 700 Gasteizen.

Aurtengoa 10. ikasturtea da GEU elkarteak, Gasteizko euskaigintzaren eta beste hainbat eragileren ekimenez, Gasteizko Mintzalaguna programa abiatu zuenetik eta ordutik, Gasteizko Mintzalagunak sustatzaile talde zabal baten babesa du. Honako erakunde eta kolektibo hauek osatzen dute sustatzaile taldea: GEU elkartea, IKA, AEK, Udaberria, HEO eta Hegoalde euskaltegiak, Bai & by eta Topagunea. Babesleak, aldiz, Gasteizko Udala, Eusko Jaurlaritza, Vital Fundazioa eta Laboral Kutxa. Hala Bedi Irratia, Diario de Noticias de Alava, Radio Vitoria eta Alea laguntzaileak dira.

Sustatzaile talde horretatik eratu zen Jarraipen Batzordea. Azken honek egitasmoaren erabaki estrategikoak hartzeko ahalmena du eta dinamizatzailerik eta proiektuari berari ere, babes aktiboa eskaintzen dio programa gertutik jarraituz eta mintzalaguna egitasmoaren egitekoak finkatuz. Gainera beraien egituretan zein eragin esparruan ekimenaren zabalkunde eta euskarrien banaketan laguntzen dute.

2017/2018 ikasturte hasierako datuen arabera, 696 lagun inguruk eman dute izena eta 81 mintzalagun talde osatu dira. Kopuruek gora egin dezakete, ikasturte osoan zehar internet bitartez matrikula egiteko aukera baitago.

2. 2016/2017 IKASTURTE BUKAERA

2.1. IKASTURTEAN ZEHARREKO BILAKAERA

Parte-hartze datuei erreparatuz gero, 16/17 ikasturtean jazotako gorabeherak horrela labur daitezke:

	Parte hartzaileak	Taldeak
Ikasturte hasiera	658	86
Ikasturteko bilakaera	687	86
Ikasturte bukaera	607	83

16/17 Ikasturte hasierako matrikulazio kanpainaren bukaeran, azaroa, 658 izen emate izan genituen. Gainera, ikasturtean zehar beste 29 matrikulazio berri jazo genituen beraz urte osoan zehar 687 parte hartzaile izatera iritsi ginen. Ikasturte osoan zehar 80 baja izan genituen, hortaz ikasturte bukaeran 607 kide ziren Mintzalagun programan parte hartzen zutenak.

Ikasturte hasieran 85 talde sortu ziren, ikasturtean zehar izan genituen matrikulazio berriak jende beharra zuten taldean indartzera bideratu genituen beraz ez zen talde berririk sortu, ahal ere ikasturte bukaerarako 3 talde desegin ziren.

2.2. IKASTURTE AMAIERAKO BALORAZIO GALDETEGIA

Ondoren aipatuko direnak, Topaguneak Euskal Herri osoko datuak kontuan hartuta egindako ebaluaketen emaitza dira. Azpimarratu beharra dago orokorrean Gasteizko mintzalagunak oso aktiboak izan ohi direla ebaluaketa hauek betetzeko unean eta islatzen duen errealitatea Gasteizko egoeraren oso hurbilketa ona izan ohi dela.

Aurreko ikasturtean egitasmoetan gutxienez hiru urte zeramatzaten bidelariei (mintza-LAGUN) luzatu genizkien galderak, eta, **aurten, bidelagunen (mintza-LAGUNTZAILE) erantzunekin** kontrastatu nahi izan dugu iaz jasotako informazioa. Helburua, hortaz, bidelagunen pertzepzioa, beharrak eta proposamenak biltzea izan da. Zehatzago, honako galderei bilatu nahi izan diegu erantzuna:

- *Bidelagunak zergatik ari dira ekimenean laguntzen, eta zergatik jarraituko dute?*
- *Zein behar daukate egiteko horretarako?*
- *Nola eragiten die ekimenak?*
- *Bidelagunek nola ikusten dituzte inguruko bidelariak?*
- *Nabaritzen al dute garapenik?*

2.2.1. PARTE HARTZEKO ARRAZOTIAK ETA MOTIBAZIOA

Euskara praktikatzeko kideak behar dituzten pertsonen laguntzeko ematen dute izena bidelagunek. Baina zerk bultzatzen ditu pausoa ematera? Gehienek diotenez, **euskararen normalizazioan modu aktiboan laguntzeko (%81,8)** hasten dira ekimenean; horixe da motibazio nagusia. Ez bakarra, ordea, eta **inguruan euskaraz aritzeko jende gehiago izateko (%28,1) edo laguntzaileak falta zirela jakin zutelako (%20,7)** ere ematen dute izena.

Bestalde, zenbait kidek, bidelagun izan aurretik, beste norbaiten laguntza izan zuten euskara praktikatzeko (mintzalagun taldean horietako askok). Orain, beraiek dira beste batzuei laguntzen dietenak.

Izena emateko garaian, bidelagun askok **tokiko hedabidearen bidez izan zuten mintzalagun ekimenaren berri (%36,4)**. Informazio iturri gisa, herriko euskaltzaleen elkartea, lagun eta senideak, eta kaleko iragarkiak aipatzen dituzte ostean.

Galdetegia osatu duten bidelagunek, **batz beste, 4 urte eta erdi daramatzate ekimenean**.

Beste alde batetik, ekimenean hasi zirenetik bidelagunek **beren egunerokoan nabaritu dituzten aldaketak** aztertu dira galdetegian. Horretarako, zenbait baieztapen 1tik 10era puntuatu dituzte (1 kontra, 10 erabat ados). 7 puntutik gora bildutako portzentajeak ikus daitezke jarraian:

- *Euskararen alde nire alea uzten ari naizela sentitzen dut > %77,6*
- *Jende gehiago ezagutu dut (taldean zein taldetik kanpo) eta euskaraz egin dezaket beraiekin > %71,9*
- *Egiten dudana ahalegina mintzalagunek baloratzen dutela sentitzen dut > %69,5*
- *Lagun euskaldun gehiago ditut inguruan > %58,6*
- *Aisialdian ondo pasatzeko gune berri bat lortu dut > %53,7*
- *Euskarari dagokionez, askorentzat pertsona erreferentea bihurtu naiz: euskaraz egiten didate ingurukoek > %52,1*
- *Egiten dudana ahalegina herritarrek baloratzen dutela sentitzen dut > %48,8*
- *Herriko euskarazko ekintzetan gehiagotan hartzen dut parte (kultur emanaldiak, bazkariak, irteerak...) > %44,7*
- *Taldetik kanpo, lehen baino gehiagotan egiten dut euskaraz nire egunerokoan > %41,3*
- *Euskara maila hobea daukat > %38,8*

Ikasturteko prozesuari dagokionez, 1 eta 10 artean 7 puntutik gorako erantzunak aztertuta, bidelagunak **eroso sentitu dira (%94,2), ez dute irakasle rola izan** eta kide bat gehiago izan dira (%85,2). Orokorrean, kideei nola lagundu jakin dute (%65,3), eta asteen behin geratzea konpromiso egingarria izan da (%81). gainera, pertsona moduan asebateago sentitu dira (%73,5).

2.2.2. BIDELAGUNEN HIZKUNTZA OHITURAK TALDETIK KANPO

Iaz bidelariekin egin bezala, bidelagunei mintzalagun taldeetatik kanpo euskaldunekin nola hitz egiten duten galdetu diegu. Aitortzen dutenez, **batez ere seme-alabekin, lankide edo ikaskideekin,**

eta merkatariekin aritzen dira euskaraz. Erdararen presentzia aurreko kasuetan baino handiagoa da bikotearekin eta lagunekin aritzerakoan.

2.2.3. BIDELARIEN AURRERA PAUSOAK BIDELAGUNEN USTEZ

Euren ustez, praktikatzeko beharra duten kideek ekimenean hasi baino **euskara maila hobea dute gaur egun, konfiantza eta erraztasun handiagoak izateaz gain**. Era berean, lehen baino gehiago bizi dira euskaraz, eta lagunak egiteko zein lanerako baliagarria zaie aurrerapausoa. Hala ere, taldetik kanpoko harreman sareetan ematen dituzten hizkuntza aldaketekin zalantzak dituzte edo ez dute aldaketarik dagoenik uste.

Mintzalagunen egunerokoarekin lotuta, **parte hartzaileen arteko harremana euskaraz** izaten da taldetik kanpo topo egiten dutenean ere. Beraz, euskarazko elkarrizketak ez dira astean ordubete horretara mugatzen, euskarazko harreman ohitura txertatzen da kideen artean.

Horretaz gain, bidelagunen ustez, **bidelariak eroso (%92,6), lasai (%58,7) eta ilusioz (%50,4) sentitzen dira taldean**. Ez zaie iruditzen deseroso, nekatuta, motibazioa galduta edo tentsioan daudenik.

2.2.4. AURRERA BEGIRA

Egitasmoari, batz bestea, 8,5 puntu ematen dizkiete bidelagunek, eta programarekin pozik daudela adierazten dute galdetegian. Horregatik, **%89k hurrengo ikasturtean jarraitzeko asmoa** dute (%8k ez dakite). Arrazoi nagusiak bi dira: taldean gustura daudela eta ongi pasatzen dutela, batetik, eta bidelariei laguntzen jarraitu nahi dutela, bestetik. Euskaraz bizitzeko aukera izatea eta laguntzearen ondoriozko asebetetzea ere aipatzen dituzte.

Aurrekoarekin lotuta, bidelagunen **%77,7ak inguruko euskaltzaleei mintzalagun ekimenean parte hartzea gomendatu** izan die. Gainontzekoek ez dute deirik egin, baina gomendagarria iruditzen zaie.

Bidelagunek hartu beharreko jarrera eta izan beharreko parte hartzeari buruz, gomendio beharra aipatu dute zenbaitek, nahiz eta aitortu orokorrean *modu naturalean* jokatzeko dutela

2.3. EKINTZA OSAGARRIAK (2016-2017 ikasturtea)

Gasteizko sare euskalduna ehuntzeko helburuz, ekintza osagarri desberdinak antolatu dira, mintzalagunak euren artean ezagutu daitezen. Tartean, gurasoei eta gazteei bereziki zuzendutako ekintzak ere burutu dira. Informazio osatua eskaintzen diegu mintzalagunei gasteizkomintzalaguna.eus atarian.

Kanpoko ekintzak

- Ikasturte hasierako Mintza-triki-poteoa. 2015-11-03. Gasteizko Alde Zaharra (Mintzalagun Tabernak).
- **Agur 2016 Zaldiaran** mendi irteera. Abenduak 31 · Zaldiaran mendia
- Mintza-poteoa. 2016-01-23. Babesgabe eta Judimendi (Mintzalagun Tabernetan).
- **Mintza Txotx 2017!**. 2016-03-11 · Bazkaria Trebiñu Sagardotegian, Askartza
 - Ibiltzen joateko aukera: Gasteizko mendietan barrena
 - Autobusez joateko aukera: Lañoko kobazulo trogloditetara bisitatuz.
 - Buelta guztiak autobusez 😊
- **Mintza Eguna 2017**. 2017-06-13 · Derio, Bizkaia.

Tailerra

- Kartoizko Markoak egiteko tailerra. 2016-01-20. KDT tailerra, Gasteiz.
- Inauteri makilaje berezia egiteko tailerra. 2016-02-17. Aldabe Gizarte Etxea, Gasteiz.

Aho bete hitz 2017. Saio gastronomikoak:

- Apirilak 3 · Etxeko pizza tailerra. Mamia-Artepan., Gasteiz.
- Apirilak 4 · Txakolin eta gazta dastatzea. Mikel Garaizabalekin. Errexala, Gasteiz.
- Apirilak 5 · ‘Sukal + (das)tatu’. Josetxo Saenz de Duranarekin. Beheko Sua, Gasteiz

Ibilbide gidatuak

- *Atzo gaur eta biharko Gasteiz Euskalduna*. 2015-12-27. Gasteizko Alde Zaharra.
- *Gasteizko Hormirudiak*. 2017-05-28. Alde Zaharra, Gasteiz.
- *M3moriala*. 2017-03-10. Zaramaga, Gasteiz.

Udako Ekintza Osagarriak:

- Lorategi Botanikora bisita gidatua. 2017-07-04. Olarizu, Gasteiz.
- *Gasteizko Kultura Alternatiboan barrena* bisita gidatua. 2017-07-6. Alde zaharra, Gasteiz.
- *Bat, Bi, Hiru* ilustrazioa tailerra. 2017-07-12. Florida parkea, Gasteiz.
- *Elikadura Burujabetzaz Mintzo* gogoetarako proposamen. 2017-07-19. Abetxukoko baratzak, Gasteiz.

Mintzalagun izatearen abantailak:

- *Hautsa* 2016-10-13 · Principal antzokia
- *Francoren bilobari gutuna* 2016-11-02 · Principal antzokia
- *Azken trena Treblinkara* 2016-11-26. Félix Petite antzokia
- *Mami Lebrun* 2016-12-01 · Principal Antzokia
- *Kreditua* 2017-01-21 · Principal Antzokia
- **Alea** astekariaren harpidetzan %10eko deskontua, ikasturte guztia.
- **EHUko ikasleentzat Kreditu Askeak eskuratzeko aukera**. Topagunea eta EHUren arteko hitzarmenari ezker Mintzapraktika programetan parte hartzen duten ikasleek (Mintzalagun zein Mintzalaguntzaileek)

2.3.1. GURASOEI ZUZENDUTAKO EKINTZAK

GEU elkarteak hainbat ekintza eskaini ditu familia giroan euskara sustatzeko. **Familia Irteerak eta Igandeak Jai** egitasmoen bitartez haurrentzako tailerrak, ikuskizunak, jolasak eta bisita gidatuak burutu dira urtean zehar.

2.3.2. BESTELAKO PROPOSAMENAK

Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoaz baliatuz, honetan lortu daitezkeen erosketa-txekeak aprobetxatuz, mintzalagun taldeak **irakurle ezkutua** antolatzen gonbidatu genituen.



UDAKO EKINTZA OSAGARRIAK

LORATEGI BOTANIKORA
BISITA GIDATUA BIZIKLETAZ
Uztailak 4, asteartea, 19:00etan,
Olarizun

"GASTEIZKO KULTUR ALTERNATIBOAN
BARRENA"
Uztailak 6, osteguna, 19:00etan,
Oihanederretik

"BAT, BI, HIRU" ILUSTRAZIO TALERRA
Uztailak 12, asteazkena, 19:00etan, Flori-
da parkean

"ELIKADURA BURUJABETZAZ MINTZO"
Uztailak 19, asteazkena, 19:00etan, Aste-
txukon

EKINTZA BAKETZA: 5€
 EKINTZA GUZTIAK: 35€

Izena emateko: magirre@geusikartea.eus / 945222153 / 648907565

Udako ekintza osagarrien kartela



MINTZA EGUNA
2017ko ekainaren 3an,
DERION

18:00 Ongi etorria eta harrera-ekitalia.
 19:00 Bi programak, aukeran:
 - "XX. mendeko literatura bikoitza" liburua aurkeztu.
 - "XX. mendeko literatura bikoitza" liburua aurkeztu.
 - Berriz bizi daren gurea Arakatzeko eta Berriz
 Bizi daren gurea Arakatzeko eta Berriz Bizi daren gurea Arakatzeko.
 20:00 Katalina animazioa. Berriz bizi daren gurea Arakatzeko eta Berriz Bizi daren gurea Arakatzeko.
 21:00 Baskoia Berriz Bizi daren gurea Arakatzeko eta Berriz Bizi daren gurea Arakatzeko.
 22:00 Ekitalia animazioa. Berriz bizi daren gurea Arakatzeko eta Berriz Bizi daren gurea Arakatzeko.
 23:00 Taberna itxiala eta animazioa gurea Arakatzeko eta Berriz Bizi daren gurea Arakatzeko.

BAKARRIA ETA HAMAIKATOKO: 15€
 BAKARRIA, HAMAIKATOKO ETA AUTOBUSA: 35€
 EMAN IZENA emateko 30 baino lehent!
www.mintzalaguna.eus

Mintzalaguna

Mintza Eguna 2016 kartela.

3. 2017 / 2018 IKASTURTE HASIERA

3.1. KOMUNIKAZIO KANPAINA

Gasteizko Mintzalagunaren 2016-2017 ikasturteko matrikulazio kanpaina urriaren 3tik 24ra gauzatu da 'HARTU, EMAN, ERAGIN' lelopean. Aurtengoan, Mintzalagun eta Mintzalaguntzaileen arteko erlazioak naturan ematen diren sinbiosi motako elkarrekintzekin alderatu nahi izan dira. Alde bateko zein bestekoek elkarrekiko eman eta jazotzen dituzten onurak azpimarratuz. Ideia hau islatzeko, National Geografik erakundearen iruditerian oinarrituta, gazela baten eta intsektu parasitoak jaten dituzten hegazti baten irudia bilatu da. Era berean, animalien dokumentalen narratzaileek hartzen duten tonuan egindako spota ere grabatu da.



Matrikulazioaren arrakasta bermatze aldera matrikulazio epea baino lehenago eta bitartean ere, hainbat komunikazio ekintza burutu dira programa jendartean zabaltzeko eta Gasteizko euskaldunak eta euskalduntze bidean daudenak programan parte hartzera animatzeko.

Hauek dira burututako komunikazio ekintzak:

- Hedabideekin kolaborazioak

- ALEA (prentsa oharra, albisteak, argazkiak...)
- DNA: publizitate insertzioak.
- Hala Bedi irratia: kuña
- Radio Vitoria: kuña

- Whatsapp bidezko komunikazioa

Mintzalagunekin komunikazio hurbila, konfiantza esparrua eta sartzeko aukera sortzeko asmoz.



3.2. MATRIKULAZIO ETA TALDE BANAKETA

Lehenago aipatu lez, 17/18 ikasturteko matrikulazio kanpaina urriaren 3tik 24ra gauzatu da. Matrikulazio garaian, 696 lagunek eman dute izena eta 82 talde osatu dira. Matrikula guztiak jaso eta, gutxi gora-behera, hilabete eta erdiz luzatu da taldekatze prozesua.* Ikasturte honetan aurrekoan baino 38 matrikula gehiago izan dira eta egitasmoaren hasieratik izan den parte hartzaile kopuru handiena da. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, egitasmoaren bilakaera historikoak positiboa izaten jarraitzen du.



*Abenduaren 12an jasotako datuak


3.2.1. SEXUA ETA ADINA




Adinari dagokionean, mintzalagunean dagoen batz-batekoa 48 urtekoa da. Orokorrean mintzalaguntzaileen adina mintzalagunena baino zertxobait nagusiagoa da. Zehazki, 48 urtekoa mintzalagunen kasuan eta 49 urtekoa mintzalaguntzaileen artean. Bestalde, parte hartzaileak nagusienak 80 urte ditu eta gazteenak berriz, 18 urte.

Gasteizko Mintzalagunean parte hartzen dutenen artean urteetan ikusi den bezala emakumeak dira nagusi, 493 (% 71) emakumezko 200 (% 29) gizonezkoren aurrean. Parte hartzaile motaren arabera banaketa hurrengoa da:

Mintza-LAGUNEN banaketa sexuaren arabera




Mintza-LAGUNTZAILEEN banaketa sexuaren arabera




Ikusten dugunez aldea mintzalagunek markatzen dute, izan ere mintzalaguntzaileen artean ez dago batere alderik sexuari dagokionean.

3.2.2. ESPERIENTZIA

Orokorrean Mintzalagun programan parte hartzen dutenen kopuru handi batek soilik urte betez egiten du, aurtan izen eman dutenen artean % 37 dira lehen urtez izena eman dutenak. Hala ere grafiketan ikus daitekeen bezala badira Gasteizko Mintzalagunean hasieratik parte hartu duten zenbait kide 2007 eta 2008 urteetan izena eman zuten 25 kide mantentzen dira gaur gaurkoz Mintzalagunean aktibo. 2017ko urriaren 28an, Geu elkarteak 25 urte betetzen zituela ospatzeko [Egin Dezagun Kale](#) jaialdia ospatu genuen, bertan leku berezia izan zuten Mintzalagunean urteak daramatzaten lagun horiek eta bazkalostean omenalditxo xume batekin eskertu nahi izan genuen beraien urteetako lan eta ahalegina.





Grafiketan ikus dezakegunez, orokorrean mintzalaguntzaileen fideltasuna programarekiko mintzalagunena baina estuagoa da.



3.3. TALDEEN JARRAIPENA

Mintzalaguneko teknikariek sortutako taldeak euren artean banatzen dituzte. Aurreko urteetan sortutako taldeekin bilera egiten da ikasturte hasieran. Talde berrien kasuan, prosezua oso antzekoa da baina kasu honetan teknikariak taldea elkarren artean ezagutzeko eta beraien buruak aurkezteko dinamizatzen du lehenengo bilera.

Bilera horietan mintzalaguntzailea aurkeztu, harremetarako bideak eta taldearen hitzorduak zehazten dira. Gainera talde bakoitzean berriemaile bat izendatzen da hilean behin, edo behar denean, helbide elektroniko bidez teknikariei taldearen egoeraren berri emateko.

Taldeak arazorik gabe aurrera egiten baldin badu dinamizatzailerik ez da bertako kideekin berriro bilduko ekainera arte. Hori bai, esan bezala, berriemaileekin etengabeko kontaktua mantenduko da taldearen martxa ezagutzeko. Mintzalagunek emailez jasotzen dute ekintza osagarrien inguruko informazio guztia. Aurten gainera, berriemaileei whatsapp bidez egindako difusio taldeen bitartez bidaltzen zaie ekintza osagarrien informazioa, haiek taldeetan elkarbanatu dezaten. Modu honetan komunikazioa zuzen eta eraginkorragoa dela uste da.

3.4. MINTZALAGUN TABERNAK

Gasteizko taberna euskaldunak Mintzalagun egitasmoan parte hartzeko ekimena da. Mintzalagun taldeak non bildu eta zer egiteko askatasun osoa duten arren, gehiengo batek tabernetan elkartzea erabakitzen du.

Proiektu honen helburua, hain zuzen, mintzalagunak biltzeko hautatu dituzten taberna horiekin elkarlana sustatzea da. Era berean, mintzalagunen topagune izatea bilatzen duten tabernek parte har dezakete egitasmo honetan.

2017/2018 ikasturtean 16 tabernek osatzen dute Mintzalagun tabernen sarea. Gasteizko mintzalagunak taberna hauetara hurbiltzerakoan bermatua izango dute (ahal den neurrian) euskarazko zerbitzua eta hizkuntza paisaia.

Honez gain, taberna hauetan, ahal den heinean, Gasteizko Mintzalaguneko ekintza osagarriak antolatuko dira (euskarazko emanaldiak, hitzaldiak, kontzertuak...).





**MINTZALAGUN
TABERNA**

**EUSKARA
ongi etorria!**

www.gasteizkomintzalaguna.eus

Aldapa

San Bizente aldapa, 2 · Alde Zaharra

Dazz

Aiztogile, 60 · Alde Zaharra

El Galeón

Jazinto Arregi, 5 · Lakua

Gorbeia Bodegoia

Errementari, 26 · Alde Zaharra

Hala Bedi

Aiztogile, 98 · Alde Zaharra

Koxka

Salburua Bulebarra, 3 · Salburua

Kupela

Foru kalea, 2 · Zabalgunea

Oasis

Olagibel, 54 · Judimendi

Parral

San Frantzisko Xabier, 4 · Alde Zaharra

Querida María

Santa María plaza · Alde Zaharra

Txinbo

Aiztogile, 57 · Alde Zaharra

Txistu

San Bizente, 1 · Alde Zaharra

Urbeltz

Ozeana Barea, 9 · Borinbizkarra

Zurrupea

Angulema, 12 · Babesgabeak

Itzala

Arana, 24 · Arana

Alkartetxe

San Prudentzio, 3 · Zabalgunea

MEMORIA



Egin d**E**zag**U**n kale!

URRIAK 28
larunbata
GASTEIZ

GEU elkarteak 25 urte
Gasteizko Mintzalagunak 10 urte
Gasteizko euskal(e)dunon jaia

1. SARRERA

Arabako euskaldunak gutxi garela eta Araban euskaraz egiteko aukerak urriak direla esaten da askotan. Aitzitik, gero eta gehiago dira euskararen alde haien egunerokotasunean egiten duten Arabarrak eta Gasteiztarak. Horregatik, euskararen kale erabilera sustatzeko eta eremu publikoan duen lekua eta prestigioa lortzeko helburuz, ***Egin dezagun kale! Arabako Euskal(e)dunon jaia*** antolatu zen urriaren 28an.

Programa osoa irekia izan zen arren, egun horretan zehar talde xede ezberdinei bideratutako ekimenak gauzatu izan dira, denak euskaraz, eta denak euskarazko harremanak sustatzeko helburua izan dutenak. Izan ere, batzuk euskarazko ikuskizunak izango badira ere, ikuskizun hauen eskala, metodologia edo ekintza osagarriak direla eta, parte-hartzaileen arteko euskarazko harremanak sustatu dituzte.

Egun osoan zehar hainbat eta hainbat pertsona batu izan ziren, Araba eta Gasteizko euskaldunen sare oparoa irudikatuz.



2. EKINTZAK

Arabako euskaldunak eta euskalduntze prozesuan dauden pertsonak euskara erabiltzera animatuko dituen egun osoko saio handi bat antolatu zen urriaren 28an, jai giroan. **Egin dezagun kale! Gasteizko euskal(e)dunon jaia.** Hauek antolatu ziren ekintza ezberdinak:



> **“Atzoko, gaurko eta biharko Gasteiz euskalduna”** ibilbide gidatua.

Ordubeteko ibilbide gidatu bat antolatu zen Gasteizko euskalgintzaren ikur eta bide-harri diren tokiak ezagutzuz, hau da, Gasteizen euskarak edo euskararen Gasteizek utzitako arrastoarekin mapa bat irudikatzen duen ibilbidea.

Bertara 14 pertsona gerturatu ziren eta ordubeteko iraupena izan zuen.



> **Mikro-antzerki zirkuitua.**

Hiru gun e desberdinetan, hiru antzezlan euskaldunen hiruna saio izango ziren, jendeari bat, bi edo hirurak ikusteko aukera emanez,. Antzezlanetan, bertaratutakoen artean talde egiteko poteo txiki bat eskaini zen.

Hauek izan ziren ikuskizunak:

- Ortzai aretoan:



“Laburpena” Ortzaireren eskutik.

- ZAS espazioan:

“Oingoan bai!” Nisunereren eskutik.

- Baratza aretoan:

“Maitemintzen naizen bakoitzean” Nahia Hualderen eskutik.

Zirkuituaren hiru saio antolatu ziren, jendearen arteko harremana bultzatzen errazago izateko. Horrela, orotara 150 pertsonak hartu zuten parte goizeko ekintza honetan.



> Mintzapraktika bazkaria

Landatzoko kirol gunean herri bazkari bat antolatu zen. Bazkari hori hainbat ekintza gehigarriekin girotu zen jendearen arteko harremanak sustatzeko:

- GEU elkartaren 25.urteurrena eta Gasteizko Mintzalaguna programaren 10. urteurrena ospatu ziren.

- Mintzalagun programaren 2017/2018 ikasturtearen izen emate kanpaina irekiera ospatu zen.

- Mintzalagunean 10 urteko ibilbidea egindako pertsonari omenaldi txiki bat egin zitzaion.

- Tonbola eta foto-call.

- Musika eta dantza giroa sustatu ziren.

Orotara 127 pertsona bertaratu ziren.



> Larunbatak (ere) jai: Pupu eta Lore Landazuri ikastolan.

Igandeak Jai programaren harian eta programa horretan egindako sareak baliatuz, familiei zuzenduriko saio berezi bat antolatu zen. Bertan, Pupu eta Loreren ikuskizun bat antolatu zen, puxika banaketa, familia txokolatada eta aurpegi margotze tailerra.

Ikastolako guraso elkartearen inplikazioa eta lankidetzak azpimarragarritzat jotzen da.

Ekintza honek sortutako eskaria handia zela eta, gonbidapen bitartez mugatu behar izan zen sarrera, aretoaren aforoa errespetatu ahal izateko.

Guztira 300 pertsona gerturatu ziren: 120 bat guraso eta 180 ume.



> **Egin Dezagun Kale-Jira!**

Landazuri ikastolatik irtenda eta txaranga batek lagunduta Gasteizko kaleetan zehar euskararen ikusgarritasuna sustatzea helburu zuen kalejira gauzatu zen. Bertan Larunbatak ere jai saioan egondako familiak hasi ziren, bidean mintza-bazkariko kideak jasoz, eta Falerina lorategira helduz, eguneko azken ekimena gauzatzeko. Kalejiraren dinamizazioa txaranga baten esku egon zen. Orotara, ibilbide osoan zehar 200 bat lagun elkartu ziren toki ezberdinetan.

> **Kontzertua: Joselu Anaiak**

Egunari amaiera biribil bat emateko iluntzean, Falerina lorategian, kontzertu bat antolatu zen. Musika euskalduna giltzarri giro ederrean amaitu zen ***Egin dezagun kale! Gasteizko euskal(e)dunon jaia.***

Orotara 500 bat pertsona elkartu ziren kontzertuan zehar.

> **Ekintza guztiak bideo batean** laburtu dira. Ikusi hemen:

<https://alea.eus/gasteiz/1509703035709-geu-elkartea-25-urteurrena>

EGin dEza gun kale!

'Atzo, gaur eta biharko Gasteiz
euskalduna' bisita gidatua
Oihaneder Euskararen Etxea · 11:00

Mikro-antzerki zirkuitua
Ortzai · Zas · Baratza · 12:30 -14:00

Bazkaria
Landatxo kiroldegia · 14:30

LARUNBATAK (ERE) JAI!
Pupu eta Lore
Landazuri eskola · 17:00
*GONBIDAPENAREKIN BAKARRIK

Egin dezagun kale-jira!
Andre Maria Zuria · 19:00

Joselu Anaia
Falerina Lorategia · 20:30

URRIAK 28
larunbata
GASTEIZ

GEU elkarteak 25 urte
Gasteizko Mintzalagunak 10 urte
Gasteizko euskal(e)dunon jaia



* Bazkarirako txartela > 20€
Izena emateko:
945222153 · 688819118
geuelkarteak.eus

eguneko egitaraua kartelean

3. KOMUNIKAZIOA

Egunaren komunikazioa egiteko euskarri oso ezberdinak erabili ziren, baina batez ere GEU elkarteak azken 25 urteetan osatutako euskaldunen sarea erabili zen, whatsapp bidezko komunikazio berezitua lehenetsiz.

Horrela, euskarri digital ezberdinak sortu ziren komunikaziorako:



> Whatsapp bidezko komunikazio orokorra.



> GEU elkarteko kideei komunikazio berezitua.



> Mintzalagunei komunikazio berezitua.

Whatsap bidezko komunikazioaz gain, beste bide ezberdin eta orokorragoen bitartez egin zen egunaren zabalpena: kartelak, maila, alea.eus, agendak, euskararen agenda, eta abar.

Guzti horrek **Egin Dezagun Kale!** egunak prentsan oihartzun handia izatea bultzatu zuen. Hona hemen adibide batzuk:



> Gara



> Berria



> Diario de Noticias de Álava



> Gaur 8



KANTARI GASTEIZ 2017 memoria

2017ko abenduak 15

1. KANTARI GASTEIZ, zer da?

Kantari gaztetxoek artean euskarazko kantak sustatzeko ikuskizuna da. Helburua neska-mutikoek euskal kantak abesten eta dantzatzeko ondo pasatzea da, hortaz, ez du inolako lehiaketa kutsurik. Iaz antolatu zen estreinakoz KANTARI emanaldia Gasteizen, eta 180 umek hartu zuten parte. Aurten, ordea, partehartzaile kopurua bikoiztea lortu dugu eta, arlo horri dagokionez ere, helburua erabat bete dela esan genezake.

>HELBURUAK ETA BETETZE MAILA

- Haur eta gazteek euskaraz ondo pasatzea: bai neska mutikoek eta baita gurasoek ere oso pozik eta eskerrak ematen bukatu zituzten saioak.
- Harreman berriak euskaraz sortzea: Gasteizko gaztetxoek eskolaz kanpo bai lagunekin eta baita beste eskola batzuetako umeeekin ere euskaraz aritzeko parada izan dute.
- Euskal kultura sustatzea, dantzak eta kantak uztartuz: abesti guztiak izan dira euskaraz.
- Haur eta gaztetxoei ikuskizun batean parte hartzeko aukera ematea: ikustekoa da nola prestatzen dituzten koreografiak, janzkera, kamiseta serigrafiatuak...



- Familia transmisioan eta, horrenbestez, euskararen sozializazioan eragitea: guraso euskal hiztunak eta erdal hiztunak gerturatu dira euskarazko ekitaldi batera, euren seme-alaben bizitzak gure hizkuntzak duen lekuaren jakitun.
- Gasteizko eskola desberdinen artean harreman berriak sortzea: eskola guztietako gaztetxoek hartu dute parte egitasmoan.
- Gasteizko eragile desberdinen artean, euskararen baitan, elkarlana sustatzea: Gau Elkartea, Arabako ALEA, Vital Kutxa Fundazioa eta Gasteizko Udala.

>XEDE TALDEAK

Kantari Gasteiz egitasmoak bi xede talde ditu: alde batetik, hartzaile zuzenak izan diren 7 eta 11 urte bitarteko gaztetxoak. Bestetik, gazte hauen familia eta ingurukoak egitasmoaren parte izan dira ere, gazteen ikuskizunaren prestaketa lanetan parte hartuz eta ikuskizunaren egunean publiko izanez.

Lehen xede taldeari, hots, gaztetxoenei zuzendurikoa da proiektua. Haiek izan dira protagonistak; euskarazko aisialdi ekimen batean parte hartu dute, eta euskal abestigintzaren bueltan haien adin bereko kideekin euskarazko harremanak sustatu dituzte. Umeez gain, bigarren xede taldeak ere euskararen sozializazioan eginkizun garrantzitsua izan du: alde batetik, euskaldunak ez diren familiek haien senitarteko gazteen bizitzan euskarak duen balio eta garrantziaren jabe egin dira, eta euskararekiko gertutasuna sentitzeko aukera izan dute. Bestetik, familia euskaldunek umeekin batera euskarazko ekimen bat gauzatzeko aukera ere izan dute.

Bada, Gasteizen antolatutako lehen edizioaren arrakastaren ondoren, 2017an bigarren edizioa izan du KANTARI egitasmoak. Orotara, 7 eta 11 urte bitarteko 320 gazte inguruk parte hartudute aurten. Eta horretarako, asteburu oso batean zehar antolatu da ikustaldia (2016ko haur kopurua bikoiztu da aurten, iaz 180 inguru izan baitziren oholtzan). Partaideak hiru eta bost lagun bitarteko taldeetan banatu dira; denera, ikuskizunaren asteburuan, 12 emanaldi osatutako (saio bakoitzean 5-6 talde izan dira).

Familia eta lagunaren artean, 620 lagun inguru hurbildu ziren Kantarira 2016an eta, aurtengo partehartzaile kopurua kontuan izanda, zenbaki hau bikoiztea lortu dugu. 1200 lagun inguru hurbildu dira Dendarabamerkatal guneko Vital Kutxa Fundazioaren aretora.



>LANDUTAKO ARLOAK

- Aisialdia euskaraz
- Familia transmisioa eta irakaskuntza
- Kulturgintza
- Euskalduntzea
- IKT-ak

>ELKARLANA

Bestalde, Kantari garatzea ezinezkoa litzateke elkarlanean aritu gabe. Gasteizen, GEUelkartea, Arabako ALEA eta Goiena elkarlanean aritu dira Kantari Gasteiz egitasmoa abian jartzeko. Gainera, Gasteizko Udala eta Vital Fundazioaren babesa izan dugu.

2. KANTARI GASTEIZ 2017, FUNTZIONAMENDUA

-Eskolekin harremana

Gasteizko 24 ikastetxeetako umeei izan dute parte hartzeko aukera (2016an 7 ikastetxera mugatu zen). Hortaz, ikastetxeekin komunikazio zuzena eta jarraitua izan da, KANTARIren nondik norakoak azaltzeko.

-Informazioa banatu

Aurreko urtean ez bezala, 2017an izen ematearen kudeaketa online egin da. Horretarako, izen emate txantiloia eta informazioa argitzeko bideak diseinatu dira sarearen potentziala baliatuz. Gainera, GEU elkarteak, ALEA komunikazio taldeak eta Goienak, bakoitzak bere baliabideak erabiliz, iaz bezala, informazioa zabaldu dute.

-Izen ematea jaso eta datu basea osatu

Izen emateak jaso ostean datu basea osatu da. Talde bakoitzari abesti bana egokituz (zozketa bidez), koreografia eta kanta prestatzeko.

Alea.eus atarian(<https://alea.eus/araba/1499697591290-abestiak-kantari>) abestiak eta koreografia ereduak eskegi dira.

-Entsegua

Entsegua Dendarabamerkatal gunean, Vital Kutxa fundazioak duen aretoan gauzatu da, ikuskizunaren aurreko asteburuan bertan. Azaroaren 18an eta 19an izan dira aipatutako entseguak.



-Ikuskizuna

Aurreko urtean ikuskizuna Oihaneder Euskararen Etxean izan bazen ere, 2017an Dendarabamerkatal guneko Vital Kutxa Fundazioaren aretoan gauzatu da aurten, azaroaren 25ean eta azaroaren 26an.



Parte hartzaile bakoitzari 6 sarrera banatuko zaizkio, ingurukoak haien saioa ikustera joan ahal izateko. Familia eta lagunen artean, 620 lagun inguru hurbildu ziren Oihaneder Euskararen etxera 2016an eta zenbaki hau bikoiztealortu dugu 2017an, 1200 lagun inguru hurbildu baitira Dendarabamerkatal guneko Vital Kutxa Fundazioaren aretora.

Alea komunikazio taldeak KANTARlren jarraipena egin du.

- [illegible]

Argitaratutako erreportaje eta albisteak:

BadatorKantari Gasteiz ikuskizuna

Kantari Gasteiz euskarazkokaraokeaegingoduteasteburuan

Euskara sustatzeko, aisialagun

Kantari Gasteiz, zuzenean

Euskararen agendan ere eman zen hitzorduaren berri:

[HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA] Kantarieuskarazkokaraokea

Alea aldizkarian artikulua:

KANTARI



Guzrta, 320 unek parte hirtu dute azaroaren 25ean eta 26an gubernetzako sailetan. Aiaron webgunean ibizi daitezke saileak, [hona](#) erantsita daude.

Izar txikiak, agertoki gainean

Gasteizko Euskararen Astearen inguruan, bigarrenez egin dute egunetan Kantari egitasmoa; 72 taldeetan banaturako 320 bat neska-mutikok euskaraz abestu eta dantzatu dute Dendarako Vital Kutxa Fundazioaren atzetik aurrerak. **BERNABE OTTELO** GASTEIZ

az izandako arrakasta ikusita, Gasteizko Euzkararen Astearen bertan, Kanariar egintza oso onak emandakotik erabaki du; eta hori aurrerikoa baino, aurrerago edotzek ere ere du bultzatzen: asteburuan egintza osoan hamalau ikusle-tokira 320 umek hartu hartu dituzte; 72 taldeetan banatuak 7 eta 11 urte bitartekoak dira.

Ezkerburutik ere izan karri-butean eta ingandean, Dendarba merkataritzan gizona kokatzen du

Vital Kutxa Fundazioaren artean, grabatuak hamalau sailotan; giroa oso itan zen nagusi, Gasteizko Asteak 2007ko 10. urtearen arteko iturritik euskarri kanariak.

Antolatzaiek "oso pozik" daude karaoke ikuskizunak bigarrenez Gasteiz izan duen harrerarekin

Vital Kutxa Fundazioaren aretoan grabatutako hamabi saioretan; giro ona izan zen nagusi. Gartzetxoak agertoki guinera igo-eta azken asteotan entseatutako euskal kantuek

poz-positib abesten eta dantza-entzuten zitzuten bitartean, etxekoak aldiz jarraitzen zituzten horien mugimendu guxtiak. Begietatik ere ezik, teknologia berriek esker, telefonikoak pantailatik ere jarraitu zituzten askok seme-alaben emanaldiak, irudiak betikotuz.

"Inplikazioa, txalogarria"
Kantarriko gidari Amaia Txintxurreta "oso pozik" agertu da ekimenarekin: "Gazteboxen, euren gurasoen

Antolatzaileek "oso pozik" daude karaoke ikuskizunak bigarreniz Gasteizen izan duen harrerarekin



• **ALFA**



de bioteknologi biologi (Sutaga 1979) dan di Eropa bioteknologi telah berkembang menjadi industri dalam skala internasional dan sebagian besar akan berkembang lebih lanjut. Bioteknologi merupakan ilmu yang menggabungkan teknik biologi dengan teknik kimia untuk menghasilkan produk yang bermanfaat. Bioteknologi adalah ilmu yang mempelajari organisme hidup untuk menghasilkan produk yang bermanfaat. Bioteknologi adalah ilmu yang mempelajari organisme hidup untuk menghasilkan produk yang bermanfaat.

[illegible]

<http://www.globe.com>

10

- Ikuskizunaren eguna: *streaming* bidez zabaldu da, eta ekoiztu ditugun hamabi saioak zuzenean ikusteko aukera izan da. Argazkiak eta bideoak formatu profesionalean grabatu dira.



- Ikuskizunaren ostean: saioak webgunean eskegi dira. Baita saio bakoitzeko argazki galeriak ere.
<https://alea.eus/araba/1511699522529-kantari-2017-argazki-orokorrak>)
 Parte hartzaile bakoitzaripertsonalki bidali zaio bere lotura e-postaz.
 Hemen adibidea:

<https://alea.eus/gasteiz/1512426524818-kantari-2017-hamabigarren-saioa>

- NOTICIAS DE ALAVA egunkariko portada izan da KANTARI azaroaren 27ko alean.



Guztira, ia 10.000 lagunek bisitatu zuten 2016an web gunean sortutako kantariko atala www.alea.eus/kantari. 2017an, parte hartzaile kopurua igota, bisita hauek ere igo dira, proiektuaren ikusgarritasuna bermatuz.

Kantariarekin zerikusia izan duten eduki guztiek (albisteak, bideoak, argazkiak...) 13.649 bisita izan dituzte. Streaming bidez, zuzenean 255 ikustaldi izan ziren ikuskizunaren egunhandian. Eta, azkenik, Youtubeko erreproduzioei dagokienez, 1875 ikustaldi izan dituzte, oraingoz, 12 saioen bideoek.

3. GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

Goiena Komunikazio Taldea 2000. urtean sortutako kooperatiba da. Ordura arte, ibarreko herri guztietako euskara elkarteek bultzatuta, euskara hutsezko aldizkari eta telebistak genituen Debagoienean 2000. urtean proiektu guztiek bat egin zuten eta denon artean elkarlanean Goiena kooperatiba sortu zen.

Kooperatibako bazkide nagusiak euskara elkarteak dira eta sorreratik da Goienaren ardatz nagusia euskara bultzatzea eta gizarteratzea. Izan ere, gertuko informazioa eskainiz euskararen

erabilpena sustatzea eta bultzatzea izan da beti Goienaren helburua. Beste era batera ezin izan; euskararekin konprometituta dauden bederatzi elkarte izan baitira Goienaren sortzaile.

Hedabideei dagokienez, lau dira gure ardatz nagusiak:

- Goiena Aldizkaria: 20.000 etxetan banatzen dugun astekaria, doako harpidetza bidezkoa.
- Puntua: 4000 etxetan banatzen da astero, ordainpeko harpidetza bidez.
- Goiena telebista: 2017ko azken neurketaren arabera, 6.000 ikus-entzule ditu egunero gure telebistak eta iazko neurketatik gora egin duen telebista bakarrenetakoa da, gehienek behera egin dutelako, Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Goiena.eus: urtean ia bi milioi bisita izaten ditu gure plataformak. Eskualderako ataria da Goiena.eus. Atari baten osagarriak asko izan daitezke, baina informazio hurbil eta azkarra eta erabiltzailearekiko interaktibitate maila indartsua lortzea eta zerbitzu egokia ematea da gure helburua.

Hedabideez gain, bestelako komunikazio ekitaldi eta ekintzatan ere eskarmentu handikoa da Goiena Komunikazio Taldea. Kantariri dagokionez, Debagoienean orain dela 10 urte inguru hasi genuen ibilbidea eta asko dira bertako oholtzetatik pasatu diren ume eta – orain jada- gazteak.

Gasteizen 2016an izan zen lehen edizioa eta izen-emate kopurua ikusita, iazko parte-hartzaile kopurua bikoiztea izan da aurtengo erronka, eta lortu dugu.

Euskara zaindua eta genero berdintasuna ardatz

Azpimarratu, Goiena hizkuntzaren kalitateaz arduratuta dagoela eta bikaintasunaren aldeko apustua egin dugula.

Bestalde, Goienak giza eskubideak eta bizikidetzaren gizalegeko balioak errespetatzen ditu. Aldi berean informazio-askatasunari errespetua zor dio eta baita emakumeen eta gizakien arteko berdintasunari, hizketa sexistarik ez erabiliz. Horrela jasotzen da **Goienaren barne araudian eta estilo liburuan.**

Horrez gain, *Komunikazio parekiderantz: kazetarietzako eskuliburu*" ere argitaratu dugu, gure lan jardunean estilo liburuaren gehigarri eta Arantza Santestebanekin

formazio saioak egiten ditu lantalde osoak, eguneroko lanean sor daitezkeen egoera aztertu eta modurik parekideenean jokatzeko erramintak gureganatuz.

Bestalde, Goienak **"Euskadiko publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa"**-rekin bat egin zuen 2016an. Emakunderi atxikita dagoen Begira batzordeak komunikabide eta publizitate enpresekin batera landutako kodea da eta Goiena sinatzaileen artean dago hasieratik.

4. PROPOSAMEN EKONOMIKOA

Orain arte jasotako babes handitzea lortuz gero, KANTARI Gasteiz Debagoienako Kantarik duen parte hartze kopurura heltzea edota hau gainditzea espero da. Erronka KANTARilegitasmoa egonkortzea, eta haur eta gazteen (eta haien ingurukoen) erreferente bihurtzea da.

Horretan oinarrituta, KANTARI 2017 aurkeztutako baldintzetan gauzatu ahal izateko hau da proposamena:

KANTARI GASTEIZ 2017			
BALANTZEA			
GASTUAK		SARRERAK	
IKUSKIZUNA	10.372,00 €	BALIABIDE PROPIOAK	4.072,00 €
Ekitaldiaren produkzioa eta grabaketa 2 egun oso	7.672,00 €	Vital Fundazioa Babesletza	3.000,00 €
Soinua eta lokalaren apainketa	1.650,00 €	Bazkideenekarpenak (Geu Gasteiz, Alea)	1.122,00 €
Entseguak 2 egun oso	1.100,00 €		
		DIRU LAGUNTZAK	12.000,00 €
ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIOA	2.000,00 €	Gasteizko Udala	12.000,00 €
KOMUNIKAZIO KANPAINA	2.500,00 €		
BESTE GASTU BATZUK	1.200,00 €		
Gonbidapenak luzatu, datubasea osatu, abestiak eskuratu, koreografia prestatu...			
GUZTIRA	16.122,00 €	GUZTIRA	16.122,00 €




MEMORIA 2017

1. Sarrera

Alea webgunea 2016ko urtarrilaren 1ean sareratu zen. 2012an abian jarri zen Hirinet atari multimediararen lekukoa hartu eta Arabako Alea egitasmo komunikatiboa osatzeko jaio zen *alea.eus* webgunea. Horrela, hedabide bakar eta indartsu batekin irismena eta eraginkortasuna biderkatzeko aukera izan du.

Sorreratik goranzko joera izan du *alea.eus* webgune berriak. Izan ere, 2017 urte honetan bisita kopuruak gora egin du, aurreko urteko datuekin alderatuz gero. Era berean, sare sozialetako jarraitzaileek ere gora egin dute, eta Arabako Alea proiektu komunikatiboaren hirugarren hanka, hots, Alea FM irratsaioak bide onean jarraitzen du.




2. Alea.eus webgunea

2017. urtean *alea.eus* ataria egonkortu da; urtean zehar argitaratu diren eduki kopuruak gora egin du, eta horrekin batera, erabiltzaile kopuruak ere goranzko joera izan du. Era berean, sare sozialetan lortu duen inpaktua ere handiagoa izan da, eta beraz, ataria publiko zabalago batengana heldu da.

Alea webguneak Codesyntax enpresak garatutako plataforma digitala erabiltzen du. Diseinu erakargarria eta erabilerraza eskaintzen dio erabiltzaileari, eta parte hartzea sustatzen du, besteak beste, Komunitatearekin eta Zorion agurrak atalekin eta iruzkinak egiteko aukerarekin.

Aurtengo berritasunen artean, plataforman beran egindako bi inplantazio aurkitzen dira. Batetik, *minisite*-ak egiteko aukera eskaintzen du; horrela, egitasmo eta ekintza bereziei leku propioa eman ahal zaie, horien erakargarritasuna handituz. Bertan, menu propioa du nabarmendu den egitasmoak edo jarduerak, eta izaera propioa duen ataria bezala funtzionatzeko aukera ematen du.



Bestetik, eta kontuan hartuta webgunera sakelekoetik sartzen diren erabiltzaileen kopuruak gora egin duela, telefono mugikorretarako bertsioan hobekuntza nabarmenak egin dira. Adibidez, albiste gehiago agertzen dira ikusgai eta atal berriak sartu dira.

Principal Antzokia, barrutik

Erredakzioa 2018-01-22 13:44 KULTURA GASTEIZ



Ehun urte beteko ditu aurten Gasteizko Principal Antzokiak. Urteurrena ospatzeko, bisita gidatuak antolatu dituzte, banbalina artean egiten den lana gizarteratzeko.

»» [Ikusi argazki guztiak \(15\)](#)

☰ Ehun urte ikusleen ilusioa ehuntzen

"Aita bisitatzeari utzi nahi izan nion, egoerarekin nekatuta"

Itsaso Esterrona 2018-01-17 14:00 GIZARTEA ARABA



Arabak, bederatzi ume eta nerabe joaten dira kartzelara aita edo ama bisitatzeri; beste 25, izeba-osabak eta bestelako senideak ikustera. Guztira, 34 mobiladun ume daude lurraldean. ALEAk ume mobiladun izandako **Uztal Largatxarekin** hitz egin du.

☰ "Aitortza behar dugu mobiladun umeek"

(+) [Albiste gehiago »](#)

Tabuak eta mamuak

Aintzane Urrutia 2018-01-22 10:03 IRITZIA



Horrez gain, porrak egiteko tresna sortu berri da aurten, erabiltzaileek parte hartzea sustatzea helburu duena. Guztira, 1.000 parte hartzaile inguru izan dituzte aurten abian jarritako porrek.

NORTZUK GARA HARRIDETZAK

Kuadrillak Salak Komunitatea Hedabideak Zerbitzuak

ALEA Porrak

ARABA AIARALDEA AÑANA ARABAKO ERRIJOXA GASTEIZ GORBEIALDEA LAUTADA MENDIALDEA TREBIÑU



Bertso-porra

Asmatu nortzuk izango diren lehenengo hiru sailkatuak Euskal Herriko Bertsolari txapelketako finalean (abenduaren 17an, BECen). Asmatzen dutenen artean, Errigora saski bat zozkatuko du ALEAk.

ZER DA HAU?

Noizten behin, jolasteko, 'porra' txikiak jarriko ditugu martuan.



Bartzelona-Alaves porra

Zein izango da Bartzelonak eta Alavesek jokatuko duten Errege Koparen finalaren emaitza? Asmatzen dutenen artean, jokalariek sinatutako Alaves taldearen kamiseta bat zozkatuko dugu.



Hauteskunde porra


Asmatu hauteskunde porra eta irabazi bi pertsonarentzako bazkia Parra! tabernan.

Alearen webguneak Arabako berriak jasotzen ditu, eta bi modutan sailkatzen ditu informazioak: gaika (gizartea, kultura, politika...) eta kuadrillaka. Horrez gain, Komunitatea izeneko atala eskaintzen du. Bertan, norbanakoei eta taldeek kudeaketa gune propioa erabiltzeko aukera dute, eta gainera bere atal propio modukoa dauka argitaratzen dituen eduki guztiekin.


Era berean, eduki multimedia ere eskura dago *alea.eus*-en, eta bideoak, argazki-galeriak eta audioak gordetzen ditu *Hedabideak* atalean. Horrekin batera, *Zerbitzuak* izeneko atala eskaintzen du webguneak, hala nola, gida komertziala, iragarki laburrak, zorion agurrak, eskelak, eguraldia, zozketak eta publizitatea. Arabako Euskararen Agendak osatzen du eskaintza.

2.1. Elkarlana

Elkarlana ezinbestekoa da *alea.eus*-en garapenean, eta sorreratik hainbat hedabide, elkarte, enpresa eta norbanakoekin aritu da. Esate baterako, Berria, Argia, Hala Bedi, Hamaika TB, Aiaraldea, Aktual, Gaztezulo, Goiena, AEK, IKA, Indarra dantza taldea, Jimmy Jazz, Artium, Bertsozale elkarte, Sarburu kultur elkarte, Adurtza ikastola, Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkarte, Emaize Sexologia zentroa, Olabide, Armentia eta Aranbizkarra ikastola, Oihaneder Euskararen Etxea, Gasteizko



Txosnen



Batzordea, Oreka IT, Vital Kutxa Fundazioa, Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, etab.

Kolaboratzaile sarea ere zabala da, momentu honetan 35 pertsonak baino gehiagok osatzen dute eta hauen artean denetarik aurki dezakegu; kazetariak, soziologoak, bertsolariak, euskara teknikariak, kirolariak, musikariak, etab.

Era berean, Aleak Tokikomen (euskarazko tokiko hedabideen elkartea) eta Hekimenen (euskarazko hedabideen elkartea) kide da, sarean lan eginez etorkizun handiagoa izango duela ulertu baitugu hasieratik.

3. Datuak

Jarraian 2017 urteari dagozkion datu nagusienak biltzen dira. 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean jasotakoak dira. Datu hauek jasotzeko *Google Analytics* aplikazioa erabili da, hori ezarri baita estandar bezala. Aurten webgunearen bigarren urtea bete da, eta webguneak aurreko urtean lortutako datuekin egingo da konparaketa.


	Bisitak	Bisitariak	Ikusitakoak
2016	143.901	69.076	303.251
2017	165.420	80.908	314.570

2017 urtean, beraz, Aleak %52,65 bisita gehiago izan ditu eta %31,6 bisitari bakar gehiago, 2016 urteko datuekin alderatuta. Gailuei dagokienez, ugaritu da mugikorretik *alea.eus* webgunera sartzen den jende kopurua, izan ere, orain lehen gailu bihurtu da sakelekoa. Haren atzetik, oso gertu, ordenagailua.

GAILUAK	2016	2017
Ordenagailua	%53,63	%41,14

Mugikorra	%40,89	%54,45
Tableta	%5,48	%4,41

Trafikoan ere zenbait aldaketa izan dira; nabarmenena, gero eta gehiago direla sare sozialen bitartez webgunera sartzen direnak, batez ere, *Facebook* aplikaziotik. Era berean, trafiko organikoa bigarren postura igo da; horrek esan nahi du, jende gehiago sartzen dela webgunera *alea* edo *arabako alea* bezalako hitzak bilatzaileetan idatziz, edo aurkitu nahi duen elementuaren hitz klabeak jarritz.



TRAFIKOA	2016	2017
Sare sozialak	%34, 5	%38,2
Trafiko zuzena	%22, 6	%20,8
Organikoa	%21,7	%24,7
Mailchimp	%15,4	%12,5
Erreferentziazkoa	7,9%	%3,8

Datu esanguratsuak

- **Sesio eta erabiltzaile kopuruek gora egin dute.**
- **Jende gehiena, mugikorretik sartzen da.**
- 2016an jende gehiena ordenagailutik sartzen zen. Aurten, ordea, mugikorra da gehien erabiltzen den gailua, eta ia %55 sartzen da mobiletik.
- **Sare sozialen bidezko trafikoa, gora.**
- Sare sozialen bidez lortzen den trafikoak gora egin du. Trafikoaren ia %40 sare sozialetatik dator webgunera, batez ere, Facebooketik.
- **Bilatzaileetatik datorren trafikoa bigarren postura igo da.**
- Trafikoa organikoak gora egin du (3 puntu), eta hirugarren postuan egotetik bigarren postuan egotera pasa da.
- **Bisiten batz besteko iraupena minutu bat eta 57 segundokoa izan da.**
- **Bisiten %40,54 Gasteiztik datoz**

Buletina eta sare sozialak

Astero bi buletin bidaltzen dira *Mailchimp* aplikazioaren bitartez; astearteetan *Alea Buletina*, asteko albiste aipagarrienak biltzen dituen, eta ostegunetan, *Euskararen Agenda*, asteko agenda oharrekin. Guztira, 3.788 harpidedunek jasotzen dituzte buletin hauek. Iazko datuekin alderatuta, 208 erabiltzaile gehiagok jasotzen dute buletina.

Sare sozialei dagokienez, aipatzeko da gora egin duela sare sozialen bidezko trafikoak, %40ra helduz. Zentzu horretan, *Facebook*-aren erabilera nabarmen igo da azken urtean, eta gero eta gehiago dira *alea.eus*-en *Facebook*-eko profila erabiltzen dutenak; 2.435 jarraitzaile ditu, eta urte betean 500 atsegite baino gehiago lortu ditu Alearen orrialdeak.

Bestetik, atariak *Twitter* sare sozialean duen orrialdeak antzeko garapena izan du, eta igo da azken urtean jarraitzaileen kopurua. Urte betean, 1753 jarraitzaile izatetik, 2.256 jarraitzaile izatera pasa da Alearen profila. Guztira, 3.300 txio inguru egin dira. UMAP webgunearen arabera, twitterlari euskaldunen jarduna neurtzen duenak, hainbat parametroren bidez, Alearen twitterra bere ranking-eko 35. postuan kokatzen du. Hedabideen artean, 19. postuan kokatzen da Alea.

Edukiak, zenbakitan

Edukiei dagokienez, 2017an, guztira, 2.952 sarrera argitaratu dira, albiste, agenda ohar edo bestelako edukia dela. Hauek dira datu esanguratsu batzuk:

Alearen buletin digitala jasotzen ari zara.
2018ko urtarrilaren 16a.

[Ez duzu mezu hau ondo ikusi?](#)

ALEA



["Zinema egiteko pasio oso garbi eta polita ikusi dut Kuartangon"](#)
Film bat bukatu eta beste bat hasteko prest da Maider Oleaga zinemagile eta gidolaria; Donostiako euskara irakasle bakartiaren bizipenak atzean utzi, eta Kuartangoko inguru zabaletara salto egingo du. Zinema egiteko pasioak gidatzen ditu gasteizarraren urratsak toki batetik bestera.



["Trenicoa" itzuli da Arabara](#)
Vasco-Navarro tren mitikoari buruzko erakusketa dago zabalik apirilera arte Gasteizko Vital Fundazioaren aretoan.



[Ostegunean zabalduko dute Arabako sagardoaren denboraldia](#)
Aurten, Alberto Zerain omenduko dute, eta haren semeek eta lagunek zabalduko dituzte kupelak.



[Irantzu Garciak historia egin du, curlingeko munduko zirkuituko proba bat irabaztean](#)
Bere entrenatzailea Brendan Bottchet izan da oraingoan bere bikotea, Holandan egin den txapelketan.

EDUKIAK	2017
JAK	1.475
-GALERIAK	71
	67
	107
KO OHARRAK	1.276
K	42
K	18
	3

4. Ondorioak

2017an *alea.eus* webguneak lortu dituen emaitzak hobetu dira, aurreko urteko datuekin alderatuta. Arabako ALEA papereko edizioaren osagarria da, eta bi euskarri hauen artean euskarazko tokian-tokiko informazioa eskaintzen diete arabarrei. Hala, egonkortuz doan egitasmo komunikatiboa bilakatu da Arabako ALEA.

Datuek argi erakusten dute atari digitalaren bilakaera bide onean doala. Izan ere, aurten elementu eta eduki gehiago sartu dira webgunean, eta eduki hauen irismena ere handitu da. Hala, iaz baino bisita gehiago izan ditu *alea.eus*-ek, eta horrez gain, erabiltzaile kopuruak ere egin du gora. Aurten lehen aldiz, jende gehiagok erabili du mugikorra webgunera sartzeko; eta nabigatzeko ordenagailua erabiltzen dutenen kopuruak behera egin du. Zentzu horretan, lan berezia egitean ari da webgunea sakeleko telefonoetara ahalik eta hoberen egokitzeko. Goranzko joera sumatu da ere sare sozialetatik webgunera sartzen den publikoan. Esaterako, gero eta gehiago dira *Facebook* saretik *alea.eus*-era sartzen diren erabiltzaileak, %40 hain zuzen ere.

Hortaz, datorren urtera begira, irismena handitzeko ahaleginetan jarraitzeaz gain, bi dira kontuan hartu beharreko faktoreak; batetik, sakeleko telefonorako bertsioa hobetzen jarraitu behar dugu, eta bestetik, sare sozialek eskaintzen dizkiguten baliabideak erabiliko ditugu, jarraitzaile gehiago lortzeko.

Euskararen **Agenda**

2017 urteko memoria

SARRERA

2017an hamar urte bete ditu Euskararen Agenda proiektuak. 2007an abian jarri zen Gasteizko Euskararen Agenda izenarekin eta 2012tik aurrera Arabako hitzordu guztiak biltzen ditu Euskararen Agendak, Arabako Foru Aldundiaren babesari esker.

2016 urtetik aurrera ALEA egitasmo komunikatiboaren interneteko atarian, *alea.eus* webgunean, kokatzen da Euskararen Agenda. Aldaketa honek egitasmoaren hedapenean hobekuntza nabaria suposatu du. ALEAren interneteko atariak gero eta bisita gehiago ditu, eta eragin zuzena du horrek Euskararen Agendaren hedapenean. Izan ere, orotara, agendako elementuak webguneko eduki ikusienak izaten dira. Era berean, asteroko buletina jasotzen dutenen kopuruak ere gora egin du. ALEA astekariko azken bi orrialdeetan ere aurki dezakegu Arabako euskarazko hitzorduen bilduma eta harpidetza bidez jasotzen duten lagunez gain astekariaren presentzia gero handiagoa da Arabako liburutegi, administrazio eta, orokorrean, leku publikoetan.

Gainera, 2016an Euskararen Agenda mugikorretarako aplikazio berria sortu zen. 2017an app-a iragartzeko komunikazio kanpaina egin da.

Azken bi urte honetan Euskararen Agenda egonkortu da, izan ere, irismenak handitzen jarraitu du, eta denborarekin, erreferentzialtasuna irabazi du. Aurten gainera, ahalegin berezia egin da Arabako eragile, erakunde eta programatzaileen artean tresna hau zabaltzeko.

EUSKARRIAK ETA DATUAK

i. Euskararen Agenda *alea.eus* interneteko atarian

2016an abian jarri zen *alea.eus* webgunean, atal berezia dauka Euskararen Agendak. Batetik, hasiera orriko eskuinaldean modulu garrantzitsua okupatzen du. Ondoko irudian ikusten daitekeen bezala, eskuineko zutabearen agertzen dira kronologikoki hurrengo orduetan izango diren emanaldien berriak. Gainera, hasiera orriko menu nagusian *Zerbitzuak* izeneko atalean sakatuta Euskararen Agendaren orrialde nagusira eramaten zaitu.

Orrialde nagusian agenda ohar guztiak agertzeaz gain, egutegia ere ikus dezakegu eskuineko zutabearen. Orobat, urte osoko agenda ikusteko aukera dago.



Arabako osorako oharrak kudeatzen ditu Euskararen Agendak eta Kuadrillaka sailkatzeko aukera ematen du. Informazio orrialde ezberdinetan Kuadrilla horretako agenda oharrak agertzea ahalbidetzen du.

The screenshot shows the website of ALEA Gorbeialdea. The header includes the ALEA logo and the name 'Gorbeialdea'. A navigation bar lists various regions: ARABA, AIARALDEA, AÑANA, ARABAKO ERRIKOA, GASTEIZ, GORBEIALDEA, LAUTADA, MENDIALDEA, and TREBIÑU. The main content area features a large article titled 'Herri jakintza helburu, Herri Curriculumak' with a sub-header 'Eneko Azurmendi 2018-01-04 17:20' and a small 'GIZAKIA' logo. Below the title is a photograph of a group of children and adults in a rural setting. To the right, there is a sidebar titled 'EUSKARAREN AGENDA' which lists several events: '[TOPAKETA] Legutio eta euskara' (2018/01/18 19:00), '[BERTSOLARITZA] Bertso jaialdia' (2018/01/19 19:30), '[BERTSOLARITZA] Kuadrilla arteko bertso afaria' (2018/01/19 20:30), '[PROPOSAMENA] Gaztelekua' (2018/01/20 17:00), and '[TAILERRAK+ZINEMA]'.

Orotara, 2017. urtean **1.276 agenda-ohar** argitaratu dira Euskararen Agendan, iaz baino **200 elementu gehiago**. Horrela, 2017 urte hasieran zehaztutako helburua bete da, eta agenda-ohar gehiago jasotzeko asmoarekin kultur eragile berrien gana heldu gara, besteak beste, aurten garatu den aplikazioaren komunikazio kanpainari esker.

Agendako elementuen jatorriari dagokionez, Gasteizek biltzen ditu euskarazko emanaldi gehienak, aurreko urteetan bezala. Zentzu horretan, 2017an lan berezia egin da Kuadrilletako eragile eta antolatzaileei Euskararen Agenda eskaintzen dien zerbitzuaren berri emateko. 2018ra begira, lanean jarraituko dugu zerbitzua ahalik eta gehien zabaltzen, eta eragile eta antolatzaileek Euskararen Agenda eguneroko ezinbesteko tresna bezala hartzeko.

Beheko taulan ikus daitekeenez, Gasteizko oharrak ez ezik, herrietako agendako elementuen kopuruak ere gora egin du, agenda Kuadrilletara zabaltzeko egindako esfortzuaren eraginez. Nabarmentzekoak dira Añana, Arabako Errioxa, Trebiñu eta Mendialdeko datuak. Kasu gehienetan, bikoiztu egin dira.

KUADRILLA	OHAR KOPURUA	
	2016	2017
Gasteiz	561	708
Lautada	124	128
Aiaraldea	183	196
Gorbeialdea	127	149
Arabako Errioxa	12	26
Añana	4	22
Trebiñu	8	14
Mendialdea	11	21
ARABA	30	8
	1.073	1.276

ii. Asteroko buletin digitala

Aurten ere ostegunero Euskararen Agendaren buletin digitala bidali da, *Mailchimp* izeneko plataformaren bitartez. Euskararen Agendaren aste horretako ekintzekin sortutako PDF formatuko artxiboa jaisteko aukera emateaz gaiz, bederatzi ekintza nabarmendu dira. Guztira, **3.785 lagunek** jasotzen dute astero Euskararen Agendaren buletina. Horietatik, %23,2-k irekitzen du buletina ostegunero.

Sare sozialetatik ere Euskararen Agenda jarraitzeko aukera eskaintzen du buletinak.



iii. ALEA astekaria



ALEA astekariaren azken bi orrialdeetan Euskararen Agenda osatzen duten ohar garrantzitsuenak agertzen dira. ALEA aldizkaria ostiralero argitaratzen da eta harpidetza bitartez zein BERRIA egunkariarekin batera banatzen da. Astero 2.100 aleko tirada du.

iv. Sare sozialak > Facebook eta Twitter

Bi sare sozial hauetan aurki daiteke Euskararen Agendaren profil propioa.

Sare soziala	Jarraitzaileak
FACEBOOK	680
TWITTER	1.998

Aurreko urteetan bezala sare-sozioletan jarraitzaile gehiago izatea da asmoa. Horretarako, eduki interesgarriak argitaratzeaz gain, gure jarraitzaileen kontsumo ohiturak aztertuko ditugu, irismen gehiago izan dezaketen egunak eta orduak aukeratuz. Horretarako, **Euskararen Agendaren social media plana gauzatuko da 2018an**. Besteak beste, Instagram sare sozialean profila sortu du Euskararen Agendak.

v. Mugikorretarako aplikazioa

2016ko udaberrian aurkeztu zen Euskararen Agenda mugikorretarako aplikazioa. Ordutik aplikazioa eskuragarri dago Google Play (Android) eta Apple Store (iOS) dendetan, dohainik. Dijitalidadea enpresak sortu du Euskararen Agenda mugikorretarako aplikazioa, GEU elkartearekin elkarlanean eta Gasteizko Udalaren babesarekin.

Komunikazio kanpaina

2017an aplikazioaren berri emateko komunikazio kanpaina egin da. Aplikazio bera ezagutzera eman eta erabiltzaileek deskargatzeaz gain, helburua agendara hitzorduak bidaltzen dituzten eragileek deskargatzea eta euren sareetan zabaltzea izan da. Era berean, bestelako kultur eragileengana heltzea ere izan du xede kanpaina honek. Hala, kanpainaren hartzaileak Euskararen Agendaren erabiltzaileak zein erabiltzaile berriak, programatzaileak, erakundeak eta komunikabideak izan dira.



Mezua argia izan da; Arabako euskarazko jarduera guztien berri ematen duen aplikazio bakarra da. Hori zabaltzeko, kanal eta euskarri ezberdinak baliatu dira: Mailchimp, Whatsapp, Facebook, Twitter eta Instragram aplikazioak, iragarkiak Arabako Alea aldizkarian, bannerrak eta irudiak.

Sistema eragilea	Deskargak
Android	459
iOS	228

Guztira, **687** erabiltzailek deskargatu dute **Euskararen Agendaren aplikazioa**; Android sistema eragilerako 459, eta iOS-erako, aldiz, 228.

ELKARLANA

Euskararen Agenda garatzea ezinezkoa litzateke erakunde publiko eta bestelako eragileekin elkarlanean aritu gabe. Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala dira Euskararen Agendaren babesle nagusiak. Era berean, Arabako kuadrilletako euskara teknikarien kolaborazioa oso garrantzitsua da. Gainera, kultur eskaintza antolatzen duten bestelako eragileekin dugun harremana mantendu eta sendotzen saiatuko gara. Hori dela eta, aurten ahalegin berezia egin da eragile gehiagoren artean Euskararen Agendak eskaintzen duen zerbitzua zabaltzeko. Horretarako, 2017an aplikazioa sustatzeko egin den komunikazio kanpaina baliatu da. Batez ere, zabalpena Arabako herrietan dauden eragile eta erakundeen artean egin da, eta orain eragile eta erakunde berriekin lan egiten dugu:

- Arabako Errioxan: Berberana aldizkaria, Blog Rioja Alavesa, Ika Errioxa eta herrietako udalak.
- Mendialdean: Kanpezuko eta Maeztuko udalak.
- Aiaraldea: aiaraldea.eus; Amurrio Antzokia, Laudioko udala, Burubio elkarte, Artziniega eta Aiarako udala eta Aiaraldeko Euskara Zerbitzua
- Lautada: Euskara Zerbitzua
- Gorbeialdea: Euskara Zerbitzua
- Añana: Kuadrillako turismo bulegoa eta herrietako udalak.
- Trebiñu: Euskara Zerbitzua

Egitasmo hau aurrera ateratzeko asko dira GEU elkartearen bidelagunak:

- Proiektuaren babesleak: Arabako Foru Aldundia, Gasteizko Udala, Euskadiko Kutxa eta Vital Fundazioa.
- Kultur ekintzen informazioa helarazten diguten eragile nagusiak: Gasteizko Principal Antzokia, Gasteizko Berdintasun Eskola, Gasteizko Udal liburutegi sarea, Oihaneder Euskararen Etxea, Ignacio Aldecoa kultura etxea, Parral Tabernan, Jimmy Jazz aretoa, Sonora, Apolo, HellDorado kultur elkarte, Amurrioko Kafe Antzokia, Artium, Arabako

Bertsozale Elkartea, Euskharan Kultur Elkartea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikastolen Elkartea, AEK, IKA, Udaberria euskaltegia, Hegoalde euskaltegia, Harresi aretoa, Caja Vital Fundazioa, Florida Zinemak, Ttipia elkartea.

- Administrazio desberdinetako teknikariak: Arabako Kuadrilletako euskara teknikarien sarea, Gasteiz eta Arabako liburutegiko sareko teknikariak, hainbat udaletako kultura teknikariak...

ONDORIOAK

Bi urte igaro dira Euskararen Agendak Alea.eus webgunean txertatu zenetik, eta 2017ko datuak kontuan hartuta, egonkortu dela esan daiteke. Izan ere, aurten 200 agendako elementu gehiago eskaini ditu Euskararen Agendak. Horien artean, gehiengoak Gasteizko jarduerak izan arren, aurten Arabako zenbait Kuadrillatan antolatzen diren ekintza gehiago agertu dira Euskararen Agenda, iazko datuekin konparatuz gero. Izan ere, lan berezia egin da aurten Kuadrilletako kultur eragile eta antolatzaileengana heltzeko, besteak beste, aurrera eraman den Euskararen Agendaren aplikazioaren komunikazio kanpainari esker. Komunikazio kanpaina erabiltzaileei zuzenduta egon da, baina baita kultur eragilei ere, izan ere, aplikazioaren bitartez, hitzorduak bidaltzeko aukera topa dezakete. Hala, komunikazio kanpainak baliagarria izan da gure bi publiko objetiboengana heltzeko. Hala, guztira ia 700 lagunek deskargatu dute mugikorretarako aplikazioa, erabiltzaile eta eragileen artean.

Era berean, 2018ko erronken artean, Arabako kultur programatzaileen datu basea osatzea aurkitzen da, eta beraz, zerbitzu honen irismena handitzea ere izango da helburu.

Bestetik, aurten apur bat igo da sare ezberdinetan Euskararen Agendak dituen erabiltzaile kopurua, baina sare sozialetako profilen hedapenak oraindik bidea du egiteko, hori dela eta, datorren urterako beste erronka bat izango da erabiltzaile gehiago lortzea.

Orokorrean, 2017an Euskararen Agendak datu positiboak lortu ditu, eta egonkortzeaz gain, erreferentzialtasuna lortzeko bide onean dagoela esan daiteke.

ANTOLATUTAKO EKINTZEN LABURPENA · 2017

2015	2016	2017
Parral tabernako emanaldiak		
9 emanaldi : • 6 kontzertu • 2 literatura & musika & irudia • 1 diaporama Lau taldek Araban aurkezpena egiteko aukera dute Parral eta GEU elkarteak Publikoa: 545 lagun	9 emanaldi: • 8 kontzertu • 1 literatur eta musika emanaldia Protagonistak: • 3 pertsona / talde arabar • 6 talde guztiak gizonetzkoak • 3 talde emakume zein gizon Publikoa: 610 lagun	9 emanaldi: • 9 kontzertu Protagonistak: • 3 pertsona / talde arabar • 4 talde eta bakarlari bat guztiak gizonetzkoak • 2 talde emakume zein gizon • 2 bakarlari emakumezko. Antolatzaileak: 18 Publikoa: 535 lagun
Ikus-entzunezko emanaldiak (Begi Belarri)		
4 emanaldi (dokumentala + solaslaldia) * Bi saiotan kontzentratu da jendea (48 lagun) * Ekainekoan bost lagun besterik ez Publikoa: 57	7 emanaldi (Begi Belarri): Publikoa: 241 lagun	9 emanaldi (Begi Belarri): Protagonistak: • Pare bat kide izan dira soilik arabarrak. • 6 talde/pertsona izan dira gizonetzkoak • 3 talde/pertsona izan dira emakumezkoak. • 2 saiotan kontzentratu da jendea, Jon Maiaren 'Gutik zura'n gehien bat, Mugaminak ondoren. • Aterabidetik-en 2 lagun, eta Arrakalan 3. Antolatzaileak: 18 Publikoa: 230 lagun
Laburbira		
Florida zinematik Publikoa: 5 lagun	Florida zinematik Publikoa: 72 lagun	Oihaneder Euskararen Etxea *Jende batzuen iritziz kalitatea jeitsi da. Antolatzaileak: 2 Publikoa: 45 lagun
Deskontuak (Principal Antzokiko euskarazko emanaldietan)		
5 emanaldi Ikusleak: 154	5 emanaldi Ikusleak: 202	6 emanaldi • Urkoren kontzertura oso jende gutxi animatu zen. Antolatzaileak: 6 Ikusleak: 154 lagun

Igandeak jai		
10 saio * Abuztuaren 3an egindako saioan 120 lagun ingurua, bero larregi Parte hartzaileak: 945	10 saio <i>*Tor magoa eta Zu eta ni, sudurluze bi</i> , oso saio onak. Herriko jaietan berriz familia euskaldun gutxi, again zubia zelako. *Igandeak Jai-Txosnan, “Parranda Tutiplen”: 150 lagun inguru Parte hartzaileak: 1240	10 saio Saio batzuk oso jendetsuak izan ziren: • ‘Xalto pailasoa’ Mariturrin: 500 lagun. • ‘Lapurreta’ San Matinen: 200 lagun • ‘Magia parrastan’ Ibaiondo: 200 lagun Antolatzaileak: 26 Parte hartzaileak: 1551
Mintzalagunetik antolatutakoak		
Orotara: 18 emanaldi • Ikus-entzunezkoak: 1 • Jaiak: 2 • Sukaldaritza saioak: 4 • Bisita gidatuak: 4 • Irteerak: 1 • Mendi irteerak: 1 • Topaketa 2 • Bestelakoak: 1 Parte hartzaileak: 667	Orotara: 21 saio • Ikus-entzunezkoak: 0 ◦ Jaiak: 3 • Sukaldaritza saioak: 4 • Bisita gidatuak: 9 • Mendi irteera: 2 • Irteerak: 1 • Bestelakoak: 0 Parte hartzaileak: 466	Orotara: 9 • Jaiak: 3 • Sukaldaritza saioak: 3 • Bisita gidatuak: 3 *Mendi irteerak eta familia irteerak, GEUrekin mendira atalean sartu dira aurren. Antolatzaileak: 25 Parte hartzaileak: 300
Euskarak 365 egun		
Kalejira eta kandelen mosaikoa Ikusgarria >hedabideetan ihartzuna Parte hartzaileak: 300	Desiren zuhaitza, kalejira eta kandelen mosaikoa. *Arrakastatsua izan zen Parte hartzaileak: 350	Kandelen mosaikoa, kalejira, erronken zuhaitza *Eguraldi txarra izan zen arren, jendea gerturatu zen eta polita izan zen. Antolatzaileak: 6 Parte hartzaileak: 100
Txosna		

• Txandak: 220 lagun • Matxete Rap > 200 lagun inguru Aihotz txotx > 100 lagun (giro hurbila) • Inaugurazio ekitaldia > 50 lagun • OPG afaria> 32 lagun	• Txandak: 240 lagun • Inaugurazio ekitaldia: 30 lagun. • Aihotz txot+Ordago folk+dantza plaza: 120 lagun. • Astalapo + Eratu: 350 lagun inguru • Kustumatxa: 30 lagun inguru	• Txandak: 210 lagun • Inaugurazio ekitaldia: Aihotz txot+GEUre Saria+Ordago folk+dantza plaza: 200 lagun • The Icer Company + DJLoro: 150 lagun • Kargak & Deskargak: 150 lagun • OPG afaria: 42 lagun Antolatzaileak: 15 Guztira: 752 lagun
GEUrekin mendira		
		Irteerak: 11 *8 irteeretako balorazioa egin da. Antolatzaileak: 25 Parte hartzaileak: 87 lagun Orotara: 119 lagun
Irakurle Kluba		
		Saioak: 10 *4 saioaren balorazioa egin da. Antolatzaileak: 4 Parte hartzaileak: 121 lagun Orotara: 302 lagun
Familia irteerak		
		Saioak: 2 Antolatzaileak: 2 Parte hartzaileak: 39 lagun
Motibazio tailerrak (Zergatik ez?)		
		Saioak: 7 * 6 Olabiden, 1 Koldo Mitxelena Antolatzaileak: 12 Publikoa: 107 lagun
Ibilbide gidatuak		
		Saioak: 4 *Garbriel Aresti euskaltegia, 2 IRALE Antolatzaileak :5 Parte hartzaileak: 101

Gazteiztarak Arraun The World		
		Saioak: 1 Antolaketan: 2 lagun Publikoa: 30 lagun
EGIN DEZAGUN KALE! (25. Urteurrena)		
		Hainbat ekintza Antolaketan: 10 lagun Parte hartzaileak: 400 lagun
OROTARA		
• 63 emanaldi • 222 lagun antolaketan • 3371 parte hartzaile	• 60 saio • 166 lagun antolaketan • 3601 parte hartzaile	• 79 saio • 171 lagun antolaketan (*zalantza) • 4765 parte hartzaile